



EBAZPENA (11/2009 esp., MERKATARITZA-ORDUTEGIAK)

Osoko Bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, lehendakaria

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakariordea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2009ko azaroaren 24an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du MERKATARITZA-ORDUTEGIEI buruzko 11/2009 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, honako hauen kontra: Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS); Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera; Centros Comerciales Carrefour, S.A.; Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI); Decathlon España, S.A.U; El Corte Inglés, S.A.; Eroski, S. Coop.; Ikea Norte, S.L.; Leroy Merlin España, S.L.U.; Media Markt Administración España, S.A.U.; Supermercados Sabeco, S.A. eta Toysrus Iberia, S.A.U. Izan ere, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legeak debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egin zituzten, ustez, igande eta jaiegunetan merkataritza-dendak irekitzeko ordutegia zehaztean.

AURREKARIAK

1. 2007ko abenduaren 4an LDEAk bidalitako idazkia sartu zen LDEZn (1-3 folioak) eta, horren bitartez, honakoa jakinarazi zen, ofizioz:

“Aho batez erabaki da ikerketa hasteko eskatuko zaiola LDEZri, Bilboko Merkataritza Ganbera, Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI), Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS) eta merkataritza-gune handien artean (Corte Inglés, Eroski, Ikea, Carrefour, Decathlon, etab.), legeak ezarritako mugen barruan jaiegunetan dendak irekitzeari buruzko hitzarmenik dagoen eta Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearekin bateragarria den ikertzeko. Hitzarmen hori “adostasun-mahaian” egingo litzateke [...]”

2. Salatutako gertaerak egiazkoak ziren egiaztatzearen, eta Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean (LDL) azaldutako arau-



hausterik egon den ikertzearren, 2007ko abenduaren 28an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak egindako ebazpenaren bitartez, isilpeko informazioaren instrukzio-fasea hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zigor-espedita hasi aurretik, Lehia Defendatzeko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (14-15 folioak).

3. 2008ko otsailaren 4an, LDEZk informazioa eskatu zien Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberari, Arabako Merkataritza eta Industriako Ganbera Ofizialari eta Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialari. 2008ko otsailaren 19 eta 20an jaso zuen informazio hori LDEZk (112-134, 248-270 eta 271-276 folioak).
4. 2008ko otsailaren 4an, LDEZk informazioa eskatu zien Gipuzkoako Enpresarien Elkarteari (ADEGI), Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS) elkarteari, Asociación Nacional de Grandes Empresas de Distribución (ANGED) elkarteari, Bizkaiko Enpresarien Konfederazioari (CEBEK), Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluari (CECOBI), Arabako Enpresariei (SEA), Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresaburuen Arabako Federazioari eta Gipuzkoako Merkatarien Elkarteari. 2008ko otsailaren 8, 19 eta 22an, martxoaren 6 eta 27an, eta apirilaren 10, 11 eta 17an jaso zuen informazio hori LDEZk (88-90, 247, 301-307, 448, 449-450, 542, 543-547 eta 551 folioak).
5. 2008ko otsailaren 4an, LDEZk informazioa eskatu zien Centros Comerciales Carrefour, S.A., Conforama España, S.A., Cortefiel, S.A., Decathlon España, S.A.U., El Corte Inglés, S.A., Eroski, S.COOP., Ikea Ibérica, S.A., Leroy Merlin España, S.L.U., Media Markt-Saturn Administración España, S.A.U., Pccity Spain, S.A.U., Supermercados Sabeco, S.A. eta Toys'R'us Iberia, S.A.U merkataritza-etxeei. 2008ko otsailaren 19, 21, 25, 26, 27 eta 28an, martxoaren 3, 4 eta 11n, eta apirilaren 16 eta 23an jaso zuen informazio hori LDEZk (98-99, 137-240, 277-289, 311-335, 336-339, 340-340, 341-359, 360-416, 417-443, 451-523, 548-550 eta 552-553 folioak).
6. 2008ko otsailaren 4an, LDEZk informazioa eskatu zien Euskadiko Langile Komisioei (CC.OO), Eusko Langileen Alkartasunari (ELA), Langile Abertzaleen Batzordeari (LAB) eta Euskadiko Langileen Batasun Orokorrari (UGT). LDEZk jakinarazpenak jaso zituen, baina eskatutako informaziorik gabe, otsailaren 18 eta 19an eta martxoaren 18an (100-103, 135-136 eta 524-527 folioak). Euskadiko Langile Komisioek (CC.OO) ez zuten jakinarazpenik bidali.



7. 2008ko maiatzaren 22an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak erabaki zuen, Lehia Defendatzeko Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, LDLn debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egin izanagatiko zigor-espeditentea hasiko zela honako hauen kontra: Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS); Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera; Centros Comerciales Carrefour, S.A.; Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI); Decathlon España, S.A.U.; El Corte Inglés, S.A.; Eroski, S.COOP.; Ikea Norte, S.L.; Leroy Merlin España, S.L.U.; Media Markt Administración España, S.A.U.; Supermercados Sabeco, S.A. eta Toys'R'us Iberia, S.A.U., bai eta salatutako gertaerekin lotuta egon litezkeen gainerako pertsona edo erakundeen kontra ere. GUILLERMO ARANZABE PABLOS izendatu zen espeditente horren instruktore, eta JAIONE ABERASTURI EREZUMA idazkari (554-557 folioak).
8. 2008ko maiatzaren 22an jakinarazi zitzaizen ebazpen hori interesdunei (566-570 folioak). Halaber, 2008ko maiatzaren 23an, espeditentea hasteko ebazpenaren berri eman zitzaion LDEAri (604-604 folioak).
9. 2008ko urriaren 6an, espeditentearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zitzaizen Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS) elkarteari, eta Centros Comerciales Carrefour, S.A., Decathlon España, S.A.U., El Corte Inglés, S.A., Eroski, S.COOP., Ikea Iberica, S.A., Leroy Merlin España, S.L.U., Media Markt Saturn Administración España, S.A.U., Supermercados Sabeco, S.A. eta Toys'R'us Iberia, S.A.U. merkataritza-etxeei, 2005, 2006 eta 2007. urteetan igande eta jaiegunetan ireki zuten Espainia guztiko dendei buruz (probintzia eta autonomia-erkidegoen arabera sailkatuta), bai eta 2008an irekitzeko aurreikuspenari buruz ere.

Informazio hori apurka-apurka jaso zen LDEZn egun horretatik 2009ko urtarrilaren 19ra arte. Izan ere, epea luzatzeko eskatu zuten (eta onartu zitzaizen) Decathlon España, S.A.U. (2008/10/20), Eroski, S.COOP. (2008/12/22), Leroy Merlin España, S.L.U. (2008/10/29) eta Media Markt Saturn Administración España, S.A.U. (2008/12/03) merkataritza-etxeek, berriro eskatu zitzaizen informazioa bidaltzeko Ikea Iberica, S.A. (2008/11/06) eta Media Markt Saturn Administración España, S.A.U. (2008/11/07) merkataritza-etxeei, eta informazio osagarria eskatu zitzaion Eroski, S.COOP. (2008/12/03) merkataritza-etxeari.
10. 2008ko urriaren 7an, espeditenteari dokumentazioa eransteko eginbidea egin zuen LDEZk eta, horren bitartez, C. D. Eroski S.COOP. sozietateko presidentek *Diario Vasco* (2008/03/02), *El Mundo* (2008/04/07) eta *El País*



(2008/04/13) egunkarietan emandako elkarrizketak sartu zirela agerrarazi zuen (694-702 folioak).

11. 2008ko urriaren 23an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberari. 2008ko abenduaren 4an jaso zen informazio-eskabide horren erantzuna LDEZn.

12. 2008ko urriaren 27an, Media Markt Saturn Administración España, S.A.U. ren idazkia sartu zen LDEZn eta bertan, besteak beste, honakoa adierazi zen (1555 folioa):

[...]

III.- Media Markt Saturn Administración España, S.A.U. sozietatearen helburu eta xedea Media Markt sozietateei administrazio-zerbitzuak ematea da, baina bere zereginen artean ez dago funtzionamendu eta kudeaketari buruzko arauak ezartzea.

IV.- Media Markt sozietateek berezko nortasun juridikoa dute, eta erabat independenteak dira, bai juridikoki eta bai haien erabaki eta kudeaketei dagokienez ere.

V.- Independentzia hori kontuan hartuta, Media Markt sozietate bakoitzak bere kontura erabakitzen du baimendutako zein igande eta jaiegunetan irekitzen duen, eremuko erabilera eta ohituren arabera.

Era berean, 2005eko otsailaren 8an egin zen *MERKATARITZA-ORDUTEGIEI BURUZKO ERABAKIA* izeneko batzarraren aktan, bertaratu ziren kideen zerrendan, honakoa adierazi zen: “*Media Markt, Barakaldo*” (128 folioa).

13. 2008ko azaroaren 4an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, beste informazio bat eskatu zion Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberari. 2008ko abenduaren 4an jaso zen informazio-eskabide horren erantzuna (1760-1760 folioak).

14. 2008ko azaroaren 4an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion C.R.X. jaunari. 2008ko abenduaren 11n jaso zen informazio-eskabide horren erantzuna LDEZn (1775 folioa).

15. 2008ko azaroaren 20an, A.E.R. jaunak Asociación de Usuarios de Servicios Bancarios (AUSBANC) elkartearen izen eta ordezkartzan bidalitako idazkia



sartu zen LDEZn. Bertan adierazi zen *“beren-beregi agertu zela interesdun gisa”* espediente honetan.

2008ko azaroaren 21ean, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren ebazpenaren bitartez, 16/2007 zigor-espedientea hasteko erabakia hedatuko zela erabaki zen eta, horrela, onartu egin zen Asociación de Usuarios de Servicios Bancarios (AUSBANC) elkartearen interesdun gisa agertzea.

16. 2008ko abenduaren 23an, *espedienteari dokumentazioa eransteko eginbidea* egin zuen LDEZk eta, horren bitartez, 2008ko abenduaren 22an *Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariko 1., 2. eta 3. orrialdeetan argitaratutako albistea sartu zela agerrarazi zuen (*1849-1852 folioak*).
17. Espedientearen instrukzioa egin bitartean, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak, eta Decathlon España, S.A.U., El Corte Inglés, S.A. eta Toys'R'us Iberia, S.A.U. merkataritza-etxeek haien interesak defendatzeko garrantzitsutzat hartu dituzten alegazioak aurkeztu dituzte, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsi zuen Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 32.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
18. 2009ko urtarrilaren 21ean, espedientearen instruktoreak, LDLren 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Gertaerak Zehazteko Orria idatzi zuen (*1.888-1.898 folioak*).
19. 2009ko otsailaren 4an, Asociación de Usuarios de Servicios Bancarios (AUSBANC) elkarteak, Gertaerak Zehazteko Orriarekin ados dagoela dioen idazkia aurkeztu zuen LDEZn. Halaber, 2009ko otsailaren 17tik otsailaren 26ra bitartean, Gertaerak Zehazteko Orriaren kontrako alegazioak aurkeztu zituzten Centros Comerciales Carrefour, S.A.k (*2205-2228 folioak*), Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak (*2231-2251 folioak*), Supermercados Sabeco, S.A.k (*2252-2271 folioak*), Media Marrk Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A.k (*2272-2323 folioak*), Leroy Merlin España, S.L.U.k (*2324-2368 folioak*), Decathlon España, S.A.U.k (*2369-2408 folioak*), Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluak (CECOBI) (*2409-2466 folioak*), Ikea Norte, S.L.k (*2468-2511 folioak*), Eroski, S.COOP.ek (*2512-2868 folioak*) eta El Corte Inglés, S.A.k (*2873-2936 folioak*), epea hamabost egunez luzatzeko eskatu ondoren (onartu egin zitzaizen).
20. Gertaerak Zehazteko Orriaren kontrako alegazioen idazkietan zenbait proba egitea proposatu zen. 2009ko martxoaren 16 eta 23an jaso zen LDEZn



egindako probei buruzko informazioa. Informazio horretatik ondorioztatu da ez dagoela Eusko Jaurlaritzak Merkataritza Ganberari bidalitako inolako idazkirik, adostasun-eskabidea azaltzen duenik. Era berean, Ganberak 2005eko otsailaren 8ko batzarrerako egindako gonbidapenari buruzko idatzizko dokumentaziorik ere ez dago.

21. 2009ko martxoaren 24an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, instrukzio-fasea amaituko zela dekretatu zuen, ebazpen-proposamena idazteko.

22. 2009ko apirilaren 30ean, faxez bidalitako hainbat idazki sartu ziren Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren erregistroan. Horietan, zigor-prozeduraren amaiera itundua lortzeko jokaerekin hasteko erabakitze eskatu zen.

Honako hauek aurkeztu zituzten adierazitako idazkiak:

- R.G.E., Leroy Merlin España, S.L.U.ren izen eta ordezkartzan.
- A.W.R. eta A.V.M., Decathlon España, S.A.U.ren izen eta ordezkartzan.
- A.A.A., Ikea Norte, S.L.ren izen eta ordezkartzan.

Halaber, 2009ko maiatzaren 4 eta 6an, gauza bera zioten bi idazki jaso ziren, honako hauek aurkeztuta:

- J.E.R., El Corte Inglés, S.A.ren izen eta ordezkartzan.
- I.F.P., Eroski, S.COOP.en izen eta ordezkartzan.

23. 2009ko apirilaren 30ean, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, besteak beste, honakoa ebatzi zen:

LEHENENGOA: Onartu egingo dira jarraian azaldukoek aurkeztu dituzten zigor-prozedura honen amaiera itundua lortzeko jokaerekin hasteko eskabideak. Hona hemen eskabideak aurkeztu dituztenak:

- R.G.E., Leroy Merlin España, S.L.U.ren izen eta ordezkartzan.
- A.W.R. eta A.V.M., Decathlon España, S.A.U.ren izen eta ordezkartzan.
- A.A.A., Ikea Norte, S.L.ren izen eta ordezkartzan.

BIGARRENA: Eten egingo da 16/2007 espedientearen prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa, probidentzia hau eman den egunetik hasi eta amaiera itundua amaitu arte.



HIRUGARRENA: Hilabeteko epea emango da, probidentzia honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, eskatzaileek konpromiso-proposamenak aurkez ditzaten.

Eskatzaileraren batek ez balitu konpromiso horiek adierazitako epean aurkeztuko, amaiera itunduaren eskabidea atzera bota duela ondorioztatuko da, eta bere kontrako zigor-prozedura tramitatzen jarraituko da.

Orobat, beste interesdunen batek probidentzia hau eman ondoren eta jakinarazpena jaso aurretik eskatuko balu zigor-prozeduraren amaiera itundua lortzeko jokaerekin hasteko, amaiera itunduaren eskatzailetzat hartuko da. Horrela bada, hilabeteko epea izango du, probidentzia honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, bere konpromiso-proposamena aurkezteko.

LAUGARRENA: Bost asteguneko epea emango da, probidentzia honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak, El Corte Inglés, S.A.k; Eroski, S.COOP.ek; Centros Comerciales Carrefour, S.A.k; Supermercados Sabeco, S.A.k; Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluak (CECOBI) eta Media Marrk Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A.k (zigor-prozeduraren amaiera itundua lortzeko jokaerekin hasteko eskatu ez dutela) amaiera itunduaren eskabidearekin ados dauden ala ez azal dezaten. [...].”

24. Amaiera itunduaren eskabideari atxikitzeke eman zen epean, jarraian adierazi diren atxikimenduak jaso ziren LDEZn. Honako hauek aurkeztu zituzten:

- M.I.M. eta I.S.C., Supermercados Sabeco, S.A.ren izen eta ordezkartzan.
- M.B.A., Media Marrk Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A.ren izen eta ordezkartzan.

Horrenbestez, honako hauek dira amaiera itunduaren eskabideari atxiki ez zaien espedientatuak:

- Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera.
- Centros Comerciales Carrefour, S.A.
- Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI).

25. 2009ko ekainaren 25ean, LDEZk bertan instruitutako zigor-espedientea bidali zion LDEAri. Espedientearekin batera, txosten bat ere bidali zuen eta, bertan, LDEZk egindako ebazpen-proposamena eta interesdunek



aurkeztutako alegazioak ere badaude. AUSBANC elkarteak eta Centros Comerciales Carrefour, S.A. merkataritza-etxeak aurkeztu dituzte alegazioak, eta labur-labur azaldu dira. Aipatu beharra dago instruktorearen probidentziaren bitartez (Centros Comerciales Carrefour, S.A.k hala eskatu zuelako) zazpi astegunez luzatu zela alegazioak aurkezteko epea eta, horrenbestez, ebazteko epea ere luzatu egin zela, beste zazpi astegunez. Hau da, 2009ko azaroaren 30ean amaituko da LDEAk ebazpena emateko epea.

AUSBANC:

- Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren erantzukizunak kentzearen kontra dago.
- Bere ustez garrantzitsua da hiru hiriburuetako alkateen eta hiru foru-aldundien iritzia eskatzea.
- Sindikatuei berriro agindeia egiteko eskatu du, merkataritza-ordutegiaren askatasunaren kontra egin dituzten adierazpen eta etsaigo-egintzen berri eman dezaten.
- Erabaki askea gomendatzen dute, langileen eskubideak urratu gabe.

Centros Comerciales Carrefour, S.A.:

- Centros Comerciales Carrefour, S.A.k debekatutako jardunbideren bat egin izana egiaztatu ez dela adierazten duen ebazpena hartzeko eskatu du.
- Subsidiarioki, zigorra ezarri ez izana justifikatzen duten inguruabarrak daudela adierazten duen ebazpena hartzeko eskatu du.
- Subsidiarioki, gutxieneko zenbatekoa duen zigorra ezartzeko.

Eskaera hori labur-labur azaldu diren alegazio hauetan dago oinarrituta:

1.- LDEZk “frogatutako gertaerei” dagokienez:

- Nabaria da Eusko Jaurlaritzak “Adostasun-mahaia” izenekoaren funtsezko alderdian duen inplikazioa.
- Batzarraren helburua 33/2005 Dekretuak ondoren baimenduko lituzkeen zortzi egunak egun bira mugatzeko izan zela ondorioztatzeak, Zerbitzuak egin duen bezala, ez du inolako justifikazio logikorik. Gainera, Zerbitzuak ez du hori behar beste egiaztatu, egozte hori ezin baitaiteke ondorioztatu adostasun-mahaia irekitzeko erabakitik, ez eta horren osteko ustezko hitzartutako jardunbide batetik ere (presuntzio-proba aplikatzeko modu eztabaidagarri baten ondorioz egotzi zena). Euskal Autonomia Erkidegoan irekitzeko egunak murriztea ez zen



batzarraren helburua izan eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan aurretiaz zegoen jaiegunetan irekitzeko *de facto* ezintasuna kontuan hartuta, ezin zen helburua hori izan. Araututako inguruan ere, hala erabakiko lukeen enpresaburuak ez luke jaiegunetan normaltasunez irekitzeko aukera errealik izango.

- Ez dago inolako kausa-erlaziorik adostasun-mahaiaren erabakiaren eta Bizkaian igande eta jaiegunetan ixtearen artean.
- Jendaurrean azaldu zen oharra hitzez hitz interpretatuta ondorioztatu da erabaki hori hartu zenean ezinbesteko baldintza hau ezarri zela: Eusko Jaurlaritzak legezko estaldura eman diezaiola, 33/2005 Dekretua garatuz. Halaber, Ganberaren oharra sistematikoki interpretatuta ikusten da bertan adierazitako bi egunak ez direla oztopo mahaikideek “erakargarritzat” hartutakoak ez diren beste egun batzuetan irekitzeko.

2.- Merkataritza-baldintzei buruzko erabakia egoteari dagokionez:

- Carrefour-ek adostasun-mahaian parte hartzeak Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen 1/2004 Legearen zioen azalpenean bertan du jatorria. Bertan adierazita dago lege horren helburua estatu-marko egonkorra ezartzea dela, kontsumitzaileak, enpresa-interesak, sindikatuak eta autonomia-erkidegoak ordezkatzeko dituzten elkarte nagusiekin ahalik eta adostasun handiena eskuratzearren ondorioz. Era berean, lege-arau horren bigarren xedapen gehigarriak dio autonomia-erkidegoei dagokiela dendak herritarrentzat irekita egon litezkeen igande eta jaiegunak zehaztea; horretarako, egun horiek kontsumitzaileentzat duten merkataritza-erakargarritasuna hartu beharko dute kontuan, batez ere. Arau-markoa horixe dela parte hartu zuen Carrefour-ek aipatutako adostasun-mahaian.
- Horrek guztiak argi azaltzen du Carrefour-ek legezko uste osoa zuela bere jokabidea araudiaren arabera zela, herri-administrazioaren kanpoko seinale agerien ondorioz.
- Adostasun-mahaiaren erabakiak ez du Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikulua hausten, ez zuelako eskumena murrizteko gaitasunik Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Subsidiarioki, lehiaren kontrako ondorerik sortu ahal izanez gero, Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikulua horrek ez luke hori ere debekatuko, iraupen laburra izan zuelako eta ondorerik gabe utzi zelako bertan adierazitako jaiegunetan ireki aurretik.
- Subsidiarioki, adostasun-mahaiaren erabakia Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikuluan barne hartuta gera liteke.
- Subsidiarioki, adostasun-mahaiaren erabakia salbuetsita egongo litzateke legez. Legeria bera da, bai Estatukoa eta bai autonomiakoa, jaiegunetan irekitzeari buruzko sektoreko erabaki



adostua izateko beharra azaltzen duena, Gobernuari ematen diola irekitzeko moduko jaiegunak zehazteko ardua, arau-antolamenduaren prozesua gauzatzeko beharrezko tramiteak egin ondoren.

- Subsidiarioki, Carrefour-i egotzitako jokabideak ez luke garrantzi handirik izango Lehia Defendatzeko Legearen 5. artikulua arabera. Adostasun-mahaiaren batzarra egin zenean zegoen testuinguru juridiko eta sozioekonomikoaren berezitasunak, erabakiaren iraupen laburra eta egikaritze praktikorik izan ez zuela kontuan hartuta, bete egiten dira garrantzi gutxiko jokabidetzat hartzeko baldintzak, araudiaren 3. artikuluan adierazitakoaren arabera.

3.- Jaiegunetan ez irekitzeko hitzartutako jardunbidea egoteari dagokionez:

- LDEZk baieztatu zuen adostasun-mahaiaren erabakian parte hartu zuten enpresetako batek ere ez duela ireki erkidego osoko jaiegun eta igandeetan, baina bai ireki dutela Estatuko gainerako lekuetan, eta horrek esan nahi du hitzartutako jardunbidea zegoela jaiegunetan ez irekitzeko. Baieztapen horrek, hala ere, ez ditu betetzen presuntzio-probaren doktrina aplikatzeko jurisprudentziak eskatutako baldintzak eta, beraz, ezin da oinarri gisa erabili enpresaburuek dendak ixteko legez kontrako hitzarmenen bat egin dutela egiaztatzeko.

4.- Arau-hauste bakar, konplexu eta jarraitua egoteari dagokionez.

- Ez dira betetzen jurisprudentziak arau-hauste bakar, konplexu eta jarraituaren kontzeptua aplikatzeko eskatutako baldintzak.

5.- Subsidiarioki, zigorra ez ezartzea justifikatzen duten hainbat inguruabar daude:

- Kanpoko presioen eraginez, Carrefour-ek ezin izan du Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu ahalik eta egun gehienetan (baita jaiegunetan ere) irekitzeko politika eta, ondorioz, salbuesle osatutzat hartu beharko da.
- Subsidiarioki, Lehia Defendatzeko Legearen 64. artikulua arabera kontuan izan behar diren irizpideen haztapena kontuan hartuta, ez zaio inolako zigorrik ezarriko Carrefour-i, edo zenbateko txikiko zigorra ezarriko zaio. Hona hemen arrazoiak: 1) Ez dago lehiaren kontrako ondorerik. 2) Eusko Jaurilaritzak bultzatu zuen Bizkaian banaketaren sektorearen erabakia lortzeko ekimena. 3) Araudi-esparrua nahasia da Carrefour-en jokaeraren legezkotasunari dagokionez. 4) Ez dago lehia murrizteko ondorerik.



26. 2009ko ekainaren 25ean LDEZk zigor-espedita bidali zion LDEAri. Espeditarekin batera, txosten bat ere bidali zuen eta, bertan, LDEZk egindako ebazpen-proposamena eta interesdunek aurkeztutako alegazioak ere badaude. Espeditarearen instruktorearen txostenean adierazi da Centros Comerciales Carrefour, S.A. merkataritza-etxeak eta AUSBANC elkarteak egindako alegazioek ez dutela inola ere indargabetzen ebazpen-proposamenean adierazitakoa, eta guztiz berretsi da.
27. 2009ko uztailaren 24an LDEAk Auzitegiaren Osoko Bilkuran erabaki zuen tramitera onartuko zela espedita, eta txostengilea izendatu zuen, Juan Luis Crucelegui Garate jauna.
28. 2009ko uztailaren 6an, espeditarearen instruktoreak probidentzia eman zuen, amaiera itunduaren prozeduran aurkeztutako konpromiso-proposamena baztertzeko eta beste konpromiso batzuk aurkezteko epea irekitzeko. Probidentzia hori egun berean jakinarazi zitzaion interesdunei.
29. 2009ko irailaren 2, 8, 9 eta 11n Leroy Merlin España, S.L.U., Decathlon España, S.A.U., Eroski, S. Coop., Supermercados Sabeco, S.A., Media Markt Baracaldo Video-Tv-Hifi-Elektro-Computer-Foto S.A., El Corte Inglés, S.A. eta Ikea Norte, S.L merkataritza-etxeen konpromiso-proposamenak jaso zituen LDEZk, amaiera itunduaren prozeduraren eremuan. Hona hemen, zerrendatuta:
- 1) Konpromisoa hartuko dute legez baimendutako igande edo jaiegunetan haien dendak irekitzeko askatasuna mugatzeko helburua duten edo mugatzea eragin lezaketen beste enpresa batzuekin hitzartutako jardunbide edo erabakietan parterik ez hartzeko.
 - 2) Lankidetzan arituko dira lehia defendatzeko euskal organoekin, Eusko Jaurlaritzak Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen abenduaren 21eko 1/2004 Legearen 4. artikuluko 4. atalak emandako eskumenak erabiltzea errazteko garatuko dituzten ekimenetan.
 - 3) Hilabeteko epean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak amaiera itunduari buruzko ebazpena egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita, beste autonomia-erkidegoetako esperientzia kontuan hartuta bereziki euskal herritarren eskaria betetzeko bere ustez urtean ireki behar den igande eta jaiegunen kopuruari buruzko arrazoizko txostena emango zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari bidal diezaion, honek zehaztutako ondoretarako.
 - 4) Hilabeteko epean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak amaiera itunduari buruzko ebazpena egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita,



beste autonomia-erkidegoetako esperientzia kontuan hartuta bereziki euskal herritarrentzat interesgarrien jotzen dituen 2010 eta 2011. urteetako igande edo jaiegunen arrazoizko zerrenda (garrantziaren arabera ordenatuta) jakinaraziko zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari bidal diezaion, honek zehaztutako ondoretarako.

30. 2009ko irailaren 14an, aurreko aurrekarian zerrendatutako enpresek aurkeztutako ebazpen-proposamenak bidali zizkion espedientearen instrukzioaren idazkariak AUSBANC elkarteari, egokitzat jotzen ziren alegazioak aurkeztu ahal izan zitezten.

31. 2009ko urriaren 2an AUSBANCen idazkia sartu zen LDEZn, zigor-espedientearen instrukzioan aurkeztutako alegazio guztiak errepikatuz.

32. 2009ko urriaren 5ean amaiera itunduaren erabaki-proposamena bidali zion LDEZk LDEAri, jarraian azaldutakoaren arabera:

Amaiera itunduaren prozedurako partaideek aurkeztutako konpromisoak aztertu ondoren, espedientearen inktoreak uste du konpondu egin direla antzeman ziren lehia-arazoak.

Hori dela eta, aurkeztutako konpromisoak onartu eta amaiera itunduaren bitartez espediente amaitzeko ebazpena emateko proposatu dio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari.

33. Aipatutako enpresek aurkeztutako konpromisoak aztertu ondoren, amaiera itundurako proposamena idatzi zuen LDEZk, eta LDEAri bidali zion 2009ko urriaren 5ean.

34. LDEAk, 2009ko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran, espediente horri buruz eztabaidatu eta epaia eman zuen.

35. Honako hauek dira interesdunak:

- BILBOKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ITSASKETA GANBERA.
- CENTROS COMERCIALES CARREFOUR, S.A.
- BIZKAIKO MERKATARITZAKO ENPRESARI KONTSEILUA (CECOBI).
- DECATHLON ESPAÑA, S.A.U.
- EL CORTE INGLES, S.A.



- EROSKI, S.COOP.
- IKEA NORTE, S.L.
- LEROY MERLIN ESPAÑA, S.L.U.
- MEDIA MARKT BARAKALDO VIDEO TV HIFI ELECTRO COMPUTER FOTO, S.A.
- SUPERMERCADOS SABECO, S.A.
- ASOCIACIÓN DE USUARIOS DE SERVICIOS BANCARIOS (AUSBANC).
- TOYS”R”US IBERIA, S.A.U.
- ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE DISTRIBUIDORES, AUTOSERVICIOS Y SUPERMERCADOS (ASEDAS).

FROGATUTAKO GERTAERAK.

LDEAk uste du instrukzioa egin bitartean LDEZk egiaztatu egin dituela jarraian deskribatu diren gertaerak:

36. “Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia” izeneko 2009ko otsailaren 8an eratu zen, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren barruan. Honako erakunde hauek hartu zuten parte: Mahaiburutza: Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera. Bertaratuak: Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI); Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados; El Corte Inglés S.A.; Eroski S. Coop.; Centros Comerciales Carrefour, S.A; Supermercados Sabeco, S.A; Leroy Merlín España, S.L.U.; Media Markt Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A.; Decathlon España, S.A.U.; Ikea Norte, S.L; Idazkaritza: Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera.

“Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren” batzar horretan Media Markt Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A. merkataritza-etxeak hartu zuen parte, eta ez Media Mark Saturn Administración España, S.A.U. merkataritza-etxeak.

Batzarraren helburua jaiegunetan irekitzeari buruzko erabakia lortzea zen, onestear zegoen Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuarekin sortu zen lege-eremu berrian.

Honakoa da “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia” izenekoan parte hartu zutenek hartutako erabakia, hitzez hitz (127 folioa):



“1.- Agertutako aldeek ezarri dute 2005. urterako bi (2) igandetan garatu ahal izango dituztela merkataritza-jarduerak merkataritza-ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren estipulazioek eragindako dendek. Egun horiek uztailaren 3a eta abenduaren 4a izango dira, hain zuzen ere.

2.- Erabaki honetako puntuak errespetatu egin beharko dituzte eragindako dendek merkataritza-jarduera garatzeari dagokionez Dekretuak baliogabetzat hartutako jaiegunak. Era berean, beste irizpide batzuk ere hartu beharko dira kontuan, esaterako irekitzeko proposatu diren jaiegun horiek kontsumitzaileentzat duten merkataritza-erakargarritasuna eta dauden merkataritza-egiturak garatzeko aukera, ezinbesteko baldintza dena Eusko Jaurlaritzak erabaki horri legezko estaldura eman ahal izateko.

3.- Mahaiak aldizka batzarrak egingo dituela erabaki da, hurrengo urteetan gai hori adostu ahal izateko.”

Batzorde Betearazleak 2005eko otsailaren 15ean egindako batzarraren aktan (Barne Merkataritza eta Ostalaritzako Batzordea; merkataritza-ordutegiak arautzea) merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahai horretan aztertutakoaren berri ematen da, eta bere helburua jaiegunetan irekitzeari buruzko erabakia lortzen saiatzea da, onestear zegoen merkataritza-ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuarekin sortu zen lege-eremu berrian. Agertutako aldeek ezarri dute 2005. urterako bi (2) igandetan garatu ahal izango dituztela merkataritza-jarduerak dekretuaren estipulazioek eragindako dendek. Egun horiek uztailaren 3a eta abenduaren 4a izango dira, hain zuzen ere.

37. 2005eko maiatzaren 19an “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak” baliorik gabe utzi zuen mahai horrek 2005eko otsailaren 8an hartutako erabakia (“Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak gaur batzartu da Bilbon, eta bertan erabaki du baliorik gabe utziko dela otsailaren 8an hartu zen erabakia []”) (126 folioa).
38. 2005eko otsailaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (40. zenbakia) argitaratu zen 33/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzkoa. Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden merkataritza-gune handiek haien merkataritza-ordutegia ezartzean, kontuan izan beharko dute gehienez ere 8 egunetan garatu ahal izango dutela merkataritza-jarduera igande eta jaiegun guztien artean.
39. Espedientatutako merkataritza-sozietateetako batek ere ez du ireki (Toys'R'us Iberia, S.A.U.k izan ezik) erkidego osoko jaiegun eta igandeetan, tokiko jaiak salbuespen direla, 2005, 2006, 2007 eta 2008. urteetan.



40. Espedientatutako merkataritza-sozietate guztiek irekitzen dituzte haien dendak gainerako autonomia-erkidegoetan baimendutako jaiegunen batean.

41. C.D.S. Eroski, S.COOP. sozietateko presidentek hainbat adierazpen egin ditu komunikabideetan (*Diario Vasco* [2008/03/02], *El Mundo* [2008/04/07] eta *El País* [2008/04/13]), eta horietan esan du Eroski, S.COOP.en asmoa igande eta jaiegunetan ez irekitzea dela, baldin eta lehiakideek irekitzen ez badute. “Jaiegunei buruz dugun jarrera antzinakoa da. Gainerako merkatariek irekitzen badute, geuk ere irekiko dugu” (701 folioa); “Jaiegunetan irekitzeko baimena dagoen lekuetan beti bete izan dugu lehiakideek egiten dutena. Merkatu horretan lider denari jarraitzen diogu, eta geu garen kasuetan, ez dugu sustatzen baimendutakoa baino gehiago irekitzea” (696 folioa); “21 jaiegunetan irekitzen den lekuetan, 21 jaiegunetan irekitzen dugu. Baina zortzi jaiegunetan irekitzen den lekuetan, erabakitzeke gaitasuna dugun merkaturak bada, ez dugu bederatzitan irekiko” (694 folioa).

42. Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS) elkarteak ez zuen parte hartu “merkataritza-ordutegi buruzko adostasun-mahai” horren batzarretan, baina bai aipatzen da merkataritza-ordutegi buruzko erabakiaren 2005eko otsailaren 8ko aktan, Merkataritza Ganberaren 2005eko otsailaren 15eko ohiko osoko bilkuraren aktan, Merkataritza Ganberaren Batzorde Betearazlearen 2005eko otsailaren 15eko aktan eta Merkataritza Ganberaren Batzorde Betearazlearen 2005eko maiatzaren 19ko aktan.

Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS) elkarteak dio ez dela joan erkidego honetan jaiegunetan irekitzeari buruzko batzar batera ere (781 folioa). Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak beren-beregi aitortu du elkarte hori partaidetzat hartzean egindako akatsa (1761 folioa).

43. Ez da egiaztatu Toys'R'us Iberia, S.A.U. benetan atxiki zaion “merkataritza-ordutegi buruzko adostasun-mahaian” hartutako erabakiari. Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak aitortu du inon ez dela agertzen atxikimendu hori idatziz egin zenik, eta “antza denez ahoz egin zela” esan du (1762 folioa).

Era berean, Toys'R'us Iberia, S.A.U.k ziurtatu egin du gainerako espedientatuena bezalakoa ez den beste jardunbide bat jarraitu duela jaiegunetan irekitzeari dagokionez, 2005eko urtarrilaren 2an (igandea) ireki egin baitzuen Gasteizen duen denda (1833-1835I folioak) (Bizkaiko



“merkataritza-ordutegei buruzko adostasun-mahaiaren” batzarren aurretik), eta 2008ko abenduaren 6an (jaieguna), 2008ko abenduaren 21ean (igandea) eta 2009ko urtarrilaren 4an (igandea) euskal autonomia-erkidegoan dituen lau dendak irekitzen saiatu baitzen (1822-1825 folioak).

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Aplikatu beharreko araudia.

44. 2007ko irailaren 1ean sartu zen indarrean Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea. Ebazteko dagoen espediente honen kasuan, LDEZk Lehia Defendatzeko Legearen arau-haustetza hartzen duen hitzarmen-jokabidea 2005eko otsailaren 8an hasi zen, 2005eko maiatzaren 19an jarraitu zen, eta hurrengo urteetara arte luzatu zen. Hala eta guztiz ere, 2008ko maiatzaren 22an hasi zen zigor-espedientea eta, beraz, Lehia Defendatzeko indarrean dagoen 15/2007 Legearen arabera tramitatu da espedientea.

BIGARRENA.- Espedientearen helburua.

45. Espediente honen helburua LDEZk egindako bi ebazpen-proposamenek mugatzen dute. Alde batetik, Lehia Defendatzeko Legearen 1.1.a) artikulua debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egon direla adierazteko proposatu dio LDEA honi; jardunbide horiek zenbait merkataritza-baldintza zuzenean ezartzeko hitzartutako jardunbidea eta erabakia egitea izango lirake, hain zuzen ere.

Halaber, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren kasuan, arau-haustea preskribatu dela adierazteko proposatu du. Azkenik, debekatutako jokabide horien erantzulezat Centros Comerciales Carrefour, S.A. hartzeko proposatu du.

Beste alde batetik, LDLren 1.1.a artikulua debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egon izanari buruzko adierazpena oinarri hartuta, zigor-prozeduraren amaiera itunduaren fasearen barruan, LDEZk LDEAri proposatu dio ebazpena egin dezala eta, horren bitartez, Leroy Merlin España, S.L.U, Decathlon España, S.A.U., Ikea Norte, S.L., El Corte Inglés, S.A., Eroski, S. Coop., Supermercados Sabeco, S.A. eta Media Markt Baracaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A. merkataritza-etxeek aurkeztutako konpromisoak onar ditzala.



Lehenengo ebazpen-proposamenari dagokionez, Centros Comerciales Carrefour, S.A.k eskatu du LDEAk merkataritza-etxe horrek debekatutako jardunbideren bat egin izana egiaztatu ez dela adierazten duen ebazpena hartzeko. Era berean eskatu du, subsidiarioki, zigorra ezarri ez izana justifikatzen duten inguruabarrak daudela adierazten duen ebazpena hartzeko. Bestela, subsidiarioki, gutxieneko zenbatekoa duen zigorra ezartzeko eskatu du.

Orobat, AUSBANC ez dago ados LDEAk Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberari dagokionez proposatu duenarekin, hau da, arau-haustea preskribatu dela adieraztearekin.

Bigarren ebazpen-proposamenari dagokionez, AUSBANCek bakarrik egin ditu alegazioak, LDEZren ebazpen-proposamenarekin ados dagoela adieraziz.

“Centros Comerciales Carrefour, S.A.” merkataritza-etxeak ebazpen-proposamenari buruz egindako alegazioak aztertzean aztertuko du LDEAk LDEZk arau-haustea adierazteko egindako proposamena. Alegazio horietatik eskabide nagusi bat ondorioztatzen da, hau da, LDEAk adieraz dezala ez dela egiaztatu aipatutako merkataritza-etxeak LDLk debekatutako jardunbideren bat egin duenik. Era berean eskatu du, subsidiarioki, “Centros Comerciales Carrefour, S.A” merkataritza-etxeari zigorra ezarri ez izana justifikatzen duten inguruabarrak daudela adierazten duen ebazpena har dezala LDEAk. Bestela, subsidiarioki, gutxieneko zenbatekoa duen zigorra ezartzeko eskatu du.

HIRUGARRENA.- Merkatu aipagarria.

46. Merkatu aipagarriari dagokionez, LDEAk bere egin du LDEZk merkatuari buruz egindako deskribapena, kasu honetarako oinarrituta eta egokituta dagoelako. Hona hemen, hitzez hitz:

“III. MERKATUA

Txikizkako merkataritza-banaketarako enpresek ondasun eta zerbitzuen multzoak ematen dizkiete kontsumitzaileei, hau da, txikizkako banaketak zenbait produktu eskaintzen ditu zenbait zerbitzuekin batera, ondasun horien erabilera hobetu eta erosketak errazten dutenak. Txikizkako banaketan dimentsio hauen arabera¹ azaltzen da lehia: banatzaileak eskaintako zerbitzuen prezioa, kokaleku geografikoa, produktuen hautaketa eta zerbitzuen maila eta kalitatea.

¹ London Economics, *A Competition in Retailing*, Office of Fair Trading; Espediente honetan dago aipatuta: C52/00 CARREFOUR/PROMODÉS.



Txikizkako merkataritza-banaketaren ezaugarri nagusia duen heterogeneotasuna da, bai jarduera-adarrei dagokienez eta bai garatzeko duen formatuaren tipologiari dagokionez ere (enpresa handien kasuan, gainera, formatu anitza ere ohikoa da). Hori dela eta, dendak sailkatzeko irizpideak ere hainbat dira. Aztertzen gabiltzan kasuan eta merkataritza- eta lehia-azterketak kontuan hartuta, dendak honela sailkatzea aukeratu da: ohiko kontsumorako ondasunekin (elikagaiak eta etxeko produktuak) lan egiten dutenak, merkataritza-banaketarako enpresa espezializatuak², etxerako ekipamendutarakoak, ekipamendu pertsonalekoak, kirolekoak, brikolajekoak eta bestelako merkataritza³. Beste sailkapen honetan sartuko lirateke biltegi handiak edo merkataritza mistoak, edo aurrekoetan azaldu ez diren sektoreak (esaterako jostailu-dendak). Aldiz, ez dago honen barruan motordun ibilgailuen eta motozikleten merkataritza eta dendetan egiten ez den merkataritza⁴.

Halaber, iraungita dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, gaur egun Lehiaren Batzorde Nazionalak (LBN), C52/00 CARREFOUR/PROMODÉS kontzentrazio ekonomikoaren espedientean, txikizkako banaketa aurkezteko dagoen lehiaren itxura eta dimentsioak kontuan hartuta⁵, honako kategoria hauen arabera sailkatzen du egunero kontsumitzeko ondasunen txikizkako banaketak aurkeztutako eskaintza:

- Hipermerkatuak: > 2500 m²; egunero kontsumitzeko ondasunen kopuru handiena eskaintzen dute, noizbehinka kontsumitzeko ondasunekin batera. Goizeko 10:00etatik gaueko 22:00etara arte egon ohi dira irekita, larunbat arratsalde eta jaiegunetan barne, eta automobilez iristeko errazak diren hiri-inguruetan egon ohi dira. Hornidura-erosketak egiteko egokiak.
- Supermerkatuak: <2.500 m² eta > 400 m². Egunero kontsumitzeko ondasunak eskaintzen dituzte eta, salbuespen-kasuetan, noizbehinka kontsumitzeko ondasunak. Eguerdietan itxita egon ohi dira, eta jaiegunetan ere ez dituzte irekitzen. Hiri-inguruan egoten dira.
- Autozerbitzuak: Oro har < 400 m². Eguerdietan itxita egon ohi dira, eta hiri-inguruan egoten dira.

² Carrefour/Promodès kontzentrazioa Espainiara zati baten bidaltzeko Batzarraren erabakiak honakoa ezarri zuen:

“Batzordeak aurreko gaietan ere azaldu du etxeko ohiko beharizanak betetzen dituen beste merkatu bat dagoela, elikagaien eta ohiko kontsumorako elikagaiak ez diren etxeko gaien txikizkako banaketarena, hain zuzen ere. Ohiko kontsumorako ondasunak diren elikagaiak dira eskaini eta eskuratutako produktu gehienak. Espainian, zerbitzu libreko txikizkako banaketa esaten zaio merkatu horri, oro har. Ondorioz, merkatu hori xehetasun-merkataritzaren kontrakoa da, bertan ez baita nagusi elikagaiena eta elikagaiak ez diren etxeko gaien salmenta. Era berean, merkataritza espezializatua ere ez dago horren barruan, elikagaiena izan zein ez, ez baitu ohiko kontsumorako ondasunen aukera eskaintzen.”

³ Saltoki handiak ezarri, aldatu eta handitzeari buruzko Dekretua aldatzen duen azaroaren 28ko 244/2006 Dekretuan azaldutako sailkapenaren arabera (244. zenbakidun EHAA).

⁴ Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) metodologiari jarraituz, txikizkako merkataritzari buruzko hainbat estatistika egitean, adibidez. *Establezimenduak eta txikizkako merkataritzaren salmenta-azalera jardueraren eta establezimenduaren azalera-estratuaren arabera. 2008.*

⁵ Azalera, produktuen aukera, marka eta kalitateen aniztasuna, ordutegia, hurbiltasuna/irisgarritasuna, zerbitzu osagarrien eskaintza, prezioa, ordainketa-txartelak.



- Ohiko dendak: Banakako arretarako dendak; horietan, produktuak hornitzeko ezinbestekoa da bezeroaren eskaria zerbitzatu duen pertsona bitarteko izatea.
- Deskontu-dendak: Denda hauen ezaugarri nagusia da prezio askoz merkeagoak dituztela gainerako banaketa-motekin alderatuta eta, aldiz, produktu eta marken aukera txikia eta banatzailearen markako produktu ugari eskaintzen dituztela.

Beste alde batetik, ohiko kontsumorako produktuak merkaturatzen dituzten merkataritza-gune handiei dagokienez, Carrefour/Promodès erabakian, hogeita hiru produktu-kategoria mugatu zituen Batzordeak⁶:

Egunero kontsumitzeko ondasunak

1. Edariak
2. Drogeria
3. Perfumeria/Higiene pertsonala
4. Elikagai lehorrak
5. Parafarmazia
6. Zerbitzu libreko produktu galkorrak

Produktu freskoak

7. Txarkuteria
8. Arraina
9. Fruta eta lekaleak
10. Ogia eta gozoki freskoak
11. Okela

Bazarra

12. Brikolajea
13. Etxekoak
14. Kultura
15. Jostailuak eta denbora-pasa
16. Lorezaintza
17. Automobiletarako ordezeko piezak

Etxetresna elektrikoak eta elektronika

18. Etxetresna elektriko handiak
19. Etxetresna elektriko txikiak
20. Argazkigintza
21. Soinua
22. Telebista eta bideoa

Ehunak

23. Ehunak eta oinetakoak

Zerrenda hori aztertuta ikusten da kontsumitzaileak hainbat dendatara joanda eskura ditzakeela zenbait produktu-mota, produktuen merkatuaren ikuspegitik merkatu horiek desberdinak direla. Hau da, merkaturatutako

⁶ Batzordearen erabakia, M. 1684, *Carrefour/Promodès* ("Carrefour/Promodès erabakia), 2000-01-25.



produktuaren berezko berezitasunak eta merkaturatzeko duen moduak ez dituzte nahitaez merkatu hermetiko hutsak eragiten; aldiz, produktu-arlo batzuetan lehia dago eta eskainitako zerbitzuari eragiten dioten gaiak egon daitezke, esaterako merkataritza-ordutegiak.

Eguneroko kontsumorako produktuak merkaturatzen dituzten enpresen (espezializatuen edo produktu anitzekoen) arteko lehia hori (erabatekoa edo zati batekoa) hainbat azterlan eta azterketatan islatu da dagoeneko. Horrela bada, ALIMARKETek hainbat parametro erabiltzen ditu 2003tik merkataritza-gune handiek (hipermerkatuek eta supermerkatu handiek) kontsumo handiko produktuak saltzeko erabiltzen duten merkataritza-azalera kalkulatzeko. Azaletik, ALIMARKETek, 5.000 m² baino gehiagoko guztizko salmenta-azalera duten hipermerkatuen azaleraren % 50 egozten dio produktu horien salmentari, 2.500 eta 5.000 m² arteko hipermerkatuen % 60, eta 2.000 m² eta 2.500 m² arteko supermerkatu handien azaleraren % 80.

Halaber, iraungita dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, Carrefour/Promodès espedientean kontuan izan zuen ez zela hipermerkatuaren azalera guztia erabiltzen elikagaiak, drogeria eta perfumeria saltzeko, eta % 45eko zuzenketa-faktorea aplikatu zuen, aipatutako produktuetarako batez beste azalera baten % 45 erabiltzen zela kalkulatu zelako. Ratio hori, gainera, bat dator AC Nielsen aholkularitza-etxeak 2006ko abenduan erabili zuenarekin, % 45eko murrizketa aplikatu baitzuen aitortutako guztizko salmenta-azaleran (2.500 m² baino gehiago), eguneroko kontsumorako ondasunen merkatuaren barruan ez dauden ondasunak eskaintzeko erabiltzen den azalera kentzearen.

Beste alde batetik, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak egindako N-306 Leroy Merlin/Brico txostenean adierazi zen brikolaje-gaien txikizkako banaketa-sektorearen ezaugarri nagusia egitura oso zatitua duela dela, hainbat operadore dituela, besteak beste honakoak: [...] 3. Produktu-familia zehatzetan espezializatutako guneak ("EG"), horien artean daudela egur, iturgintza, komun, eraikuntza-material eta antzekoetan espezializatutako azalera ertaineko dendak, edo merkataritza-gune handiagoak, esaterako IKEA (dekorazioa) edo JARDILAND (lorezaintza). 4. Orotariko merkataritza-gune handiak ("OMGH"), elikagaiak eta bestelakoak saltzen dituztenak, brikolaje-gaietarako atalak dituztela. Multzo honen barruan daude CARREFOUR, HIPERCOR eta Eroski bezalako hipermerkatuak, edo EL CORTE INGLES eta antzeko biltegi handiak. N-306 EL CORTE INGLES espedientean bertan aipatzen da brikolaje-merkatuko produktu-familiak saltzen dituzten azaleran oinarritutako ratioa % 11,2koa dela, eta % 4,53koa da HIPERCOR dendetarako.

Gauza bera adierazi zuen Batzordeak Rinascente/Colmark kasuan, Italian, eta Promodès/Simago kasuan. Horietan ondorioztatu zuen, alde batetik, ezberdin ezarritako kategorietakoak diren bi salmenta-puntu lehia



garrantzitsua izan daitezkeela antzeko neurria dutelako eta, aldiz, kategoria berekoak diren salmenta-puntuak agian ez direla haien arteko lehiakide izango oso neurri ezberdina dutelako. Beste alde batetik, ordezgarritasun asimetriko harremanak izenekoak aipatzen ditu: horien bitartez, neurri handiagoko dendek aurkezten dituzten eskaintzek neurri txikiagokoen eskaintzak ordeztuzakete, baina kontrako efektua ez da hain erraz gertatuko.

Produktu komunaren kategorien eragina ordezkatzeko duten zuzenketa-ratioak, printzipioz, 2.500 m² baino gehiagoko azalera duten guneei aplikatzen zaizkie, baina 2.000 m² baino gehiagoko supermerkatu handiei ere eragin diezaiekete, batzuetan zuzeneneko lehia izan baitaitezke hipermerkatuentzat⁷, baina azterketa honen ondoretarako, 2.500 m² baino gehiagoko dendak hartuko dira kontuan.

Halaber, espazio-monopolioaren kontzeptua⁸ etengabe aplikatzen zaio merkataritza-jarduerari. Bertan aldarrikatu da merkataritza-gune bakoitzak bezeroak erakartzeko gune bat duela, bezeroak produktuak erosteko denda horretara joateko prest egongo liratekeen kokaleku geografikoek emandakoa. Txikizkako banaketaren merkatuaren geografia-eremuari dagokionez, Batzordeak uste du, kontsumitzailearen ikuspegitik, lehia batez ere tokiko merkaturan egiten dela, hau da, kontuan hartu diren dendek eragin-eremuan edo eragin-eremuetan⁹. Hala eta guztiz ere, eskaintzaren ezaugarriak kontuan hartuta, lehiaren dinamikaren zenbait elementu hobeto ikus daitezke geografikoki zabalagoa den eskala batean, eskualde-mailan edo nazio-mailan. Horixe izan liteke Barakaldoko Mega Park gunean dauden dendek kasua, baina sinatutako erabakiak Bizkaiko Lurralde Historikoa baino ez du kontuan hartzen, eta ez die eragin alboko probintzietan dauden enpresetako dendei¹⁰. Horrela bada, aztertutako jokabideak adierazten duen geografia-eremua Bizkaia dela ondorioztatu da.

Hori guztia oinarri hartuta ondorioztatu daiteke, espezializazioak alde batera utzita eta 2.500 m² baino gehiagoko azalerei dagokienez, badagoela lehia partziala gune hauen artean: Centros Comerciales Carrefour, S.A., Eroski,

⁷ Carrefour/Promodes birbidaltzeko erabakia, 16. paragrafoa: "Zenbait supermerkatu, hala ere, hipermerkatuen antzekoak dira, eta beste supermerkatu batzuek, aldiz, ezberdintasun gutxi dute hurbileko dendekin alderatuta. Tokiko guneetako testuinguru geografikoa, lehia-testuingurua eta dauden dendek formatua zehatz aztertuta bakarrik ondorioztatu daiteke supermerkatu bat txikizkako salmentarako beste formatu batzuetatik ezberdindu behar den ala, aldiz, hipermerkatuen pareko edo hurbileko dendek antzeko egitekoak eta ezaugarriak dituen."

⁸ Merkataritza-banaketaren sektoreko lehia-baldintzei buruzko txostena (I 100/02).

⁹ Tokiko eragin-eremu horiek hainbat neurritakoak izan daitezke, salmenta-puntuen tamainaren edo horien kokalekuaren arabera (komunikabide handietatik hurbil dagoen, denda merkataritza-eremu baten barruan dagoen, etab.), eta hiri-auzoetakoak eta landa-guneetako eremu handiak izan daitezke. Eragin-eremua, halaber, dendaren tamaina, kokalekua eta guneko kontsumo-ohituren arabera ere aldatuko da. Gainera, dendek eskaintako aukeraren zabaltasun eta sakontasunak eragin-eremua handiagoa izatea eragin lezake, kontuan hartu behar baita ez direla eguneroko kontsumorako produktuak eta haien unitateko balioa garrantzitsua izan daitezkeela.

¹⁰ Adibidez, Leroy Merlin-ek iragarkiak ipintzen ditu Bizkaiko egunkarietan Santanderrin duen denda jaiegunetan irekiko duenean.



S.COOP., Supermercados Sabeco, S.A. (egunero kontsumitzeko produktuen txikizkako banaketa-merkatuan), Decathlon España, S.A.U. (kirol espezialitateko txikizkako banaketa-merkatuan), El Corte Inglés, S.A. (biltegi handien edo txikizkako banaketa mistoaren merkatuan), Ikea Norte, S.L. (etxerako ekipamenduetarako produktuen txikizkako banaketa-merkatuan), Leroy Merlin España, S.L.U. (brikolajearen espezializatutako txikizkako banaketa-merkatuan) eta Media Marr Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A. (etxerako ekipamenduetarako produktuen txikizkako banaketa-merkatuan). Bada, guztizko lehia edo lehia partzial horri dagokionez, denda horiek eskura dituzten lehia-bektoreak erabil ditzakete.

Bizkaian 2.500 m² baino gehiagoko azalera duten 28 denda daude guztira (182.458 m²), eta horietako 18 (150.149 m²) adostasun-mahaian zuzenean parte hartu zuten enpresenak dira¹¹.

ENPRESA	KOKAPENA	AZALERA (m ²)
C.C. CARREFOUR, S.A.	Erandio	12.417
EROSKI, S.COOP.	Abadiño	7.088
	Barakaldo	11.876
	Basauri	10.776
	Berango	3.936
	Gernika-Lumo	3.138
	Leioa	11.856
	Leioa	6.843
	Portugalete	10.000
	Zalla	4.215
SUPERM. SABECO, S.A.	Durango	6.100
	Mungia	2.500
DECATHLON ESPAÑA, S.A.U	Barakaldo	5.000
EL CORTE INGLES, S.A.	Bilbao	20.000
IKEA NORTE, S.L.	Barakaldo	>15.000
LEROY MERLIN ESP. S.L.U.	Barakaldo	10.000
	Leioa	3.885
MEDIA MARKT...FOTO, S.A.	Barakaldo	> 3.000
BIDE ONERA, S.C.L.	Barakaldo	> 3.000
TOYS R US IBERIA, S.A.	Barakaldo	3.000
	Bilbao	3.000
CONFORAMA ESPAÑA, S.A.	Barakaldo	> 2.500
	Basauri	> 2.500
	Leioa	> 2.500
GRANDES ALMACENES FNAC, S.A.	Bilbao	> 2.500
MUEBLES LAMBARRI, S.L.	Barakaldo	> 2.500

¹¹ Hala ere, koadroan islatu diren gainerako enpresetako batzuk adostasun-mahaian parte hartu zuten enpresak hartzen dituzten enpresa-multzoetakoak dira (Forum Eroski multzoaren barruan dago, eta Media Markt eta Saturn enpresa-multzo berekoak dira...).



(MUEBLES DOSHER)		
PRIMARK TIENDAS, S.L.	Portugalete	> 2.500
MEDIA-SATURN ESPAÑA, S.A.U.	ADM. Barakaldo	> 2.500

Iturria: Banaketari buruzko Alimarket'08 txostena eta barruko beste iturri batzuk.

Denda horiek guztiak kontuan hartuta, Eroski, S.COOP.ek¹² hartzen du azaleraren % 38; horrenbestez, bera da dagoen guneetako eragilea eta bere arabera baldintza daiteke merkataritza-gune horiek igande eta jaiegunetan irekitzeko politika.”

LAUGARRENA.- Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea hausteari buruzko adierazpena.

47. LDEZk ebazpen-proposamenean dio zigor-prozeduran aztertutako jokabideak Lehia Defendatzeko Legearen 1.1.a) artikuluan tipifikatutako debekatutako jardunbidearen barruan daudela, hau da, merkataritza-baldintza batzuk (merkataritza-dendak igande eta jaiegunetan irekitzeko ordutegiak) zuzenean ezartzeko hitzartutako jardunbidea eta erabakia. LDEZk uste du “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak” hartutako erabakia lehiakideen arteko erabakia dela —eta lehiakide ez direnen artekoa, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren kasuan— merkataritza-baldintza batzuk zuzenean ezartzeko, kasu honetan dendak herritarrentzat irekitzeko ordutegiak —igande eta jaiegunetan ireki daitezkeen egunak bi direla—, eta baldintza horiek askatasunez ezarri behar dituzte enpresaburuek, eta ez lehiakideen artean adostuta. Halaber, aipatutako erabakia formalki ondorerik gabe utzi den arren, argi geratu da bertan parte hartu duten enpresetako batek ere ez duela ireki erkidego osoko jaiegun eta igandeetan (tokiko jairen bat salbuespen dela), baina bai ireki duela Estatuko gainerako erkidegoetan. Horrek esan nahi du hitzartutako jardunbideren bat dagoela jaiegunetan ez irekitzeko.

48. Centros Comerciales Carrefour, S.A. ren ordezkariak errugabetze-jarrera azaldu du defendatzeko, eta bertan adierazi du merkataritza-etxe horrek “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren” batzar horretan parte hartu zuela merkataritza-ordutegiei buruzko arauetan (bai Estatukoetan eta autonomiakoetan) ezarritakoaren arabera, eta

¹² Eroski multzokoa da Eroski, eta bereziki aktiboa da zerbitzu libreko egunero kontsumitzeko ondasunen txikizkako merkataritza-banaketaren sektorean, merkataritza-gune handi eta ertainak ustiatzearen bitartez. Egunero kontsumitzeko ondasunen handizkako banaketaren sektorean ere jarduten du, *cash & carry* denden bitartez. Halaber, EROSKI multzoak beste jarduera osagarri batzuk ere egiten ditu, besteak beste erregaiei banaketa, bidaiari-agentzien kudeaketa, kiroletarako dendak (FORUM), perfumeria (IF) eta aisia eta kulturarako dendak (ABAC).



merkataritza-ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretua indarrean sartzear zegoela kontuan hartuta. Era berean azaldu du Centros Comerciales Carrefour, S.A.k araudi-esparru nahasiaren baitan hartu zuela parte adostasun-mahai horretan. Hori guztia dela eta, araudia aztertzeo eta hartu zen erabakia araudi horren arabera aztertzeo eskatu du.

49. Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen Estatuko 1/2004 Oinarrizko Legeak merkataritza-askatasun-printzipioa ezartzen du salgaiak saldu eta banatzeko merkataritza-dendak ireki eta ixteko ordutegia zehazteko, jaiegunetan irekitzeko egunak zehazteko eta jarduera garatzeko eguneko edo asteko ordu-kopurua zehazteko. Lege horrek autonomia-erkidegoei esleitzen die merkataritza-lokalak ireki eta ixteko ordutegien erregulazioa erabakitzeko araudi-eskumena, lehia aske eta leialaren eremuan eta ekonomiaren antolamenduari buruzko printzipioei jarraituz. Era berean, autonomia-erkidegoei dagokie ezarritako gutxieneko igande eta jaiegunak ezartzea, egun horiek kontsumitzaileentzat duten merkataritza-erakargarritasuna kontuan hartuta, batez ere. Autonomia-erkidegoek eskumen hori erabiltzen ez badute, merkatariek dendak ireki ahal izateko igande eta jaiegunak zehazteko askatasun osoa dutela ondorioztatuko da.
50. Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea aldatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko 7/2000 Legeak bigarren xedapen gehigarrian dio Euskal Autonomia Erkidegoak merkataritzaren arloan dituen eskumenak baliaturik, Eusko Jaurlaritzak, euskal merkataritza-sektoreko eragileekin hitz egin eta gero, arauak eman ahal izango dituela Merkataritza Jarduerari buruzko Legearen gai diren merkataritza-gune handietako saltokiak ireki eta ixteko ordutegiari buruz.

Merkataritza Jarduerari buruzko Legearen bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzko 33/2005 Dekretua egin du Eusko Jaurlaritzak, bereziki merkataritza-gune handiei dagokienez, eta horrela daude definituta merkataritza-gune handiak dekretu horretan: 400 metro koadrotik gora duten jendaurrean saltzeko txikizkako saltokiak dira merkataritzagune handiak. Merkataritza bakoitzak askatasun osoz erabakiko ditu bere jarduera garatzeko ordu eta egunak, eta egun horietan denda ireki eta ixteko ordutegia.

Horrela bada, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzko 33/2005 Dekretua indarrean sartu arte, hau da, 2005eko martxoaren 1era arte, euskal merkatariek askatasun osoa zuten igande eta jaiegunetan irekitzeko. Araudi hori indarrean sartu zenean ere, aukera hori mantendu egin zen, baina mugatuta, alde batetik Dekretuak lanegunak izango ez zirela ezarritako egunen mugarekin eta, beste alde batetik,



igande eta jaiegunetan ireki ahal izateko baimendutako egun kopuruaren mugarekin (8 egun urtean).

Hori dela eta, 33/2005 Dekretuan aipatzen diren merkatariek, hau da, 400 m² baino gehiagoko salmenta-azalera duten merkataritza-gune handiek, askatasun osoa dute igande eta jaiegunak zehazteko, betiere lanegunak ez diren egunei eragiten ez badie eta 8 egun baino gehiago ez badira, lehia askea erabat errespetatuz.

Araubide juridiko horrek ez du zalantzarako aukerarik ematen, ez operadore juridikoentzat ez eta 33/2005 Dekretuak eragiten dituen erakundeentzat ere (400 metro karratu baino gehiagoko merkataritza-denda handiak).

51. 33/2005 Dekretuaren Zioen azalpenak dio merkataritza-ordutegiak arautu baino lehen euskal merkataritza-sektoreko eragileei kontsultatu zaiela. Gogoan izan behar da aipatutako araudiak EAEko merkataritza-ordutegiak arautzen dituela, ordutegia zehazteko muga kuantitatibo eta kualitatiboak ezarriz, nahiz eta merkatariek askatasunez erabaki ahal duten, eta ez adostasun-mahaian gertatu den bezala, merkatarien eta merkatariek osatutako erakundeen (Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera eta CECOBI) erabakiaren bitartez egin baitzen.

Hain zuzen ere, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia” eratzeko batzarraren helburua, deskribatu diren kideek parte hartu zutela bertan, igande eta jaiegunetan irekitzeari buruzko erabakia lortzea izan zen, onestear zegoen Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuarekin sortu zen lege-eremu berrian. Bestelako gaia da euskal merkataritza-sektoreko eragileek, herritarren partaidetzarako bidezko tramitearen bitartez, merkataritza-ordutegiei buruzko araua egiteko prozeduran izan zuten partaidetza¹³.

Hau da, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia” eratzearen helburua izan zen merkataritza-ordutegiei buruz egingo zen dekretuak eragingo zituen merkatariek Bizkaiko Lurralde Historikoan zituzten merkataritza-dendak ireki ahal izateko igande eta jaiegunak hitzartzea, eta ez araua egiteko prozeduran borondatez parte hartzea. Gauzak horrela, gauza bakarra aipa daiteke: *In claribus non fit interpretatio*.

Kontuan hartu behar da “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren” erabakia 2005eko otsailaren 8an hartu zela, eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2005eko otsailaren 22an onetsi zuela 33/2005 Dekretua (2005eko otsailaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen eta biharamunean sartu zen indarrean). Gogoan izan, gainera, batzar horretan parte hartu zutenen asmoa ez zela 2005.

¹³ .- 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena.



urtean geratu, hurrengo urteetara ere luzatu baitzen, honakoa baitio erabakiaren hirugarren puntuak: “[...] mahaiaren batzarrak egingo dira aldiaren behin, gai hau hurrengo urteetan adostu ahal izateko”.

52. Arestian azaldu denetik nabarmentzekoa da “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia” 2005eko otsailaren 8an eratu zela goian aipatu diren kideen partaidetzarekin, Bizkaian dituzten merkataritza-dendak irekitzeko igande eta jaiegunak hitzartzeko partaideen artean. Hitzarmen horretan, hain zuzen ere, 2005eko bi egun ezarri zituzten: 2005eko uztailaren 3a eta abenduaren 4a. Era berean, azaldutakoaren ildotik, mahai horren aldiaren behingo batzarrak egingo zirela erabaki zuten partaideek, hurrengo urteetan ere gai hori adostu ahal izateko.

Horrenbestez, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaian” hartutako erabakiak ezin dira legean babestu (ez Estatukoan —Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen 1/2004 Legea—, ez autonomiakoan —Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea aldatzeko 7/2000 Legea—), “Centros Comerciales Carrefour, S.A.” merkataritza-etxearen ordezkariak nahi zuten bezala, eta jaiegunetan irekitzeari buruzko sektorearen adostutako erabakia izateko beharizanari erantzuten dio erabaki horrek. Aipatutako mahaiaren batzarraren aktan argi ikus daitekeen bezala, 2005eko otsailaren 8an eratu zen Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren egoitzan, partaideek igande eta jaiegunetan irekitzeko erabakiak har zituzten eta, horrela, merkataritza-dendak irekitzeko ordutegiari buruzko merkataritza-baldintzak zehatz zituzten.

Asmo hori, gainera, aipatutako mahaia eratu zen unetik haratago doa, kontuan izan behar baita hartu zen erabakiaren hirugarren puntuaren partaideek adostu zutela aldiaren behingo batzarrak egingo zirela hurrengo urteetan, merkataritza-dendak irekitzeko ordutegiak adostu ahal izateko. Adostasun-mahai hori eratu eta bi hilabetera batzartu zen, eta ondorenik gabe utzi zuen 2005eko otsailaren 8ko erabakia, baina betiere “hurrengo urteetan gai hau adosteko” asmoz. Hala da, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia” berriro batzartu zen 2005eko maiatzaren 19an, eta batzar horretan erabaki zuen baliorik gabe utziko zela 2005eko otsailaren 8an hartutako erabakia (dendak 2005eko uztailaren 3an eta abenduaren 4an irekitzeari buruzkoa). Hala eta guztiz ere, mahaiak berretsi egin zuen aldiaren behingo batzarrak izaten jarraitzeko erabakia, ondore egokiak izan zitzan, hau da, hurrengo urteetan gai hori adosten jarraitzeko.

Hori dela eta, aipatutako erabakia ezin da babestu Estatuko 1/2004 Legeak aipatzen duen adostasunean, ahalik eta adostasun handiena eskatzen baitu kontsumitzaileak, enpresaburuaren interesak, sindikatuak eta autonomia-erkidegoak ordezkatzeko dituzten elkarte nagusiekin. Adostasun hori ez da legean bertan xedatutakoa hausteko, 400 metro karratu baino gehiagoko merkataritza-dendak irekitzeko igande eta jaiegunak hitzartzearen bitartez.



Arestian adierazitakoaz gain, Auzitegi Gorenak 2008ko azaroaren 4ko epaian adierazi zuen bezala, 4. artikuluko lege-salbuespenari dagokionez,

“[...] horrek arau-edukirik izan behar badu, lege horretako 1. artikuluko aurreikuspenetatik legeriak debeku horietatik kanpo utzi nahi dituen jokabide zehatzak salbuestea da, hain zuzen ere, eta ez zuzenbide publikoaren mende dauden administrazio eta erakundeen jokaera guztiak salbuestea, baina hori ez da ondorioztatu Lehia Defendatzeko Legearen aginduetatik, eta argi esan beharko litzateke. Ildo berean, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, 2003ko ekainaren 2ko ebazpenean (espedientea: 544/02; gaia: Madrilgo Notario Elkargoa), honakoa adierazi zuen: *“lege-babeseko ustezko kasuen interpretazioak zorrotza izan behar du, eta baita murriztailea ere, legegilearen beren-beregizko borondateari erantzuten dioten jokabideak baino ez baitira horrelakotzat hartu behar izango”*.

Horrenbestez, LDEZk ebazpen-proposamenean adierazi duen bezala, lehia-araudiaren kontrako zenbait jokabide legeak salbuetsita egoteko aukerak interpretazio zorrotza izan behar du, eta ez orokorra, lege-gaikuntzaren baliokidetzat hartuz.

Beraz, arestian azaldu dena kontuan hartuta, ezin da onartu “Centro Comerciales Carrefour, S.A.”ren lege-ordezkariek ondorioztatutako errugabetze-asmoa, Lehia Defendatzeko Legearen kontrakotzat egotzitako jokabidea legeak gaituta dagoela dioen argudioaren babesean. Era berean, ezin da ados egon merkataritza-etxe horren lege-ordezkariekin, bere ordezkatuak adostasun-mahai horretan araudi-esparru nahasiaren baitan hartu zuela parte dioenean.

53. “Centro Comerciales Carrefour, S.A.” merkataritza-etxearen ordezkariak esan du adostasun-mahaian parte hartu zuela Eusko Jaurlaritzak agindeia egin ziolako.

“Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren” jatorriari eta Eusko Jaurlaritzak bertan izan zuen partaidetzari dagokionez, espedientean dauden aurrekarietatik ondorioztatu da Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberan eratu zela, eta zuzenbide publikoko korporazio hori izan zela mahaiburua. Eusko Jaurlaritzak adostasun-mahai hori eratzeko egindako eskabidea ez dago idatziz jasota, eta inon ez da agertzen Eusko Jaurlaritzak mahaia eratzeko batzarrean ez hurrengo batzarretan parte hartu zuenik. Hala eta guztiz ere, espedientean ondoriozta daiteke adostasun-mahai horrek Eusko Jaurlaritzaren eragina izan zuela (3012 folioa), merkataritza-alorrean eskumena duen sailak aldeko iritzia baitzuen adostasun-mahaiak hartutako erabakiei buruz (2974 eta 2975 folioak). Dena den, horrek ez du errugabetzeko ahalmenik Lehia Defendatzeko Legearen kontrako jokabidea eragin duten subjektu aktiboei dagokienez, eta



egotzitako arau-haustea egitetik eratorritako administrazio-erantzukizuna arintzeko baino ezin izango da kontuan hartu.

Gogoan izan dezagun Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 4. artikulua araberako salbuespen bakarri ezarri zaiola bertan ezarritako debekuen aplikazioari, legea aplikatuz ondorioztatutako jokabideei dagokiena, hain zuzen ere. Legez kontrako gainerako jokabideei Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea aplikatuko zaie, baita beste administrazio-ahal batzuen erabileraren ondorioz gertatzen direnei edo botere publikoen edo enpresa publikoen jokaerak lege-babes hori gabe eragindakoei ere. Administrazio Publikoaren jokaerak ezin du lehia urratu izana justifikatu, bakarrik legez babestuta dagoenean, eta modu murriztailean aplikatu behar da salbuespen hori. Aurretiaz esan dugun bezala, salbuespen hori ezin zaio aplikatu aztertzen gabiltzan ustezko gertaerari.

54. Adostasun-mahaiko partaideei Lehia Defendatzeko Legearen kontra egotzitako jokabidea ez dagoenez legean salbuetsita, eta ezin denez errugabetze-justifikaziorik ikusi botere publiko baten (Eusko Jaurlaritzaren) jokaeran, "Centros Comerciales Carrefour, S.A." merkataritza-etxeak ebazpen-proposamenari egindako alegazioetan azaldutakoa aztertzen jarraitu behar dugu. Bereziki Gertaerak Zehazteko Orrian eta ebazpen-proposamenean LDEZk presuntzio-proba aplikatzeko modua behar bezalakoa izan ez dela aipatzen duen gaiari dagokionez. Izan ere, aztertutako gertaeretan, presuntzio-proba aplikatu ahal izateko jurisprudentziak eskatzen dituen metatze-baldintzak betetzen ez direla aipatzen du.

LDEZk ebazpen-proposamenean adierazi zuen bezala, Europako Batzordeak esan du presuntzio-proba erabili ahal izateko ezinbestekoa dela objektiboki egiaztatutako oinarriko zenbait gertaera izatea, eta ondorioztatu nahi den gertaeraren eta egiaztatutakoaren artean lotura zehatz edo zuzena egotea, beste azalpen logikorik gabe (Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 1977ko epaia, materia koloratzaileei buruzkoa; Suiker epaia, 1975eko abenduaren 16koa).

LDEZk ere aipatu du Estatuaren lehiaren zuzenbidean presuntzio-proba erabiltzeko aukera onartuta dagoela, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak eta Auzitegi Nazionalaren epaiek onartu zutelako, baldintza hauekin: 1) Zantzuak guztiz frogatuta egon daitezela eta ez daitezela susmo huts izan; 2) Gertaeren eta zantzuen arteko kausa-harremana behar bezala arrazoituta egotea; eta 3) Zantzuak azaltzeko beste arrazoirik egonez gero, arrazoi horiek aztertu eta zergatik baztertu diren azaldu beharko da (174/1985 eta 229/1988 epaiak).

LDEZk esan du doktrina hori lehia-arloko prozeduretan aplikatu daitekeela. Izan ere, hainbat aldiz hartu dira egiaztatutako prezioak hitzartzean oinarritutako arau-haustek, aldaketak bat etorri eta aldi berean egin izanagatik (Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 1988ko uztailaren 4ko



ebazpena, igandekariei buruzkoa, Auzitegi Gorenaren 1997ko urriaren 6ko eta azaroaren 5eko epaiek berretsitakoa; edo Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 1988ko urriaren 25eko ebazpena, autoeskolei buruzkoa; 1998ko irailaren 30eko ebazpena, gripearean aurkako txertoei buruzkoa, eta 1992ko uztailaren 8ko ebazpena, jateko olioiei buruzkoa).

LDEAk “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak” 2005eko otsailaren 8an hartutako erabakia izan behar du oinarri, bai eta 2005eko maiatzaren 19an hartutakoa ere (adostasun-mahai horretan parte hartu zutenek hasieran hartutako erabakia baliorik gabe utzi zuena). Gertaera horiek frogatutakotzat hartzen dira zigor-espeditente honetan.

Era berean, LDEAk frogatutako gertaeratzat hartu du espeditentatutako merkataritza-sozietateetako batek ere ez duela ireki (TOYS”R”US IBERIA, S.A.U.k izan ezik) erkidego osoko jaiegun eta igandeetan, tokiko jaiak salbuespen direla, 2005, 2006, 2007 eta 2008. urteetan. Halaber, frogatutaz hartu da espeditentatutako merkataritza-sozietate guztiek irekitzen dituztela haien dendak gainerako autonomia-erkidegoetan baimendutako jaiegunen batean.

Hau da, honakoa ondorioztatu da LDEA honek frogatutakotzat hartutako gertaeretatik:

Zantzuak behar bezala frogatuta, eta kausa-harremana behar bezala arrazoituta

LDEAri ebazteko bidali zaion espeditentean, behar bezala egiaztatuta dago aipatutako erabakiak hartu zirela. Erabaki horiek, hasieran, merkataritza-dendak irekitzeko 2005. urteko igande eta jaiegunak (uztailaren 3a eta abenduaren 4a) itunduta zehazteko ziren, eta gero erabaki hori baliogabetzeko. Horrek ez du eragin adostasun-mahaiko kideek dendak irekitzea autonomia-izaerako jaiegunetan eta igandeetan, 33/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Aldiz, espeditentean dagoen dokumentaziotik ondorioztatu den bezala, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiko” partaideek ez dute ireki autonomia-izaerako jaiegunetan eta igandeetan.

*Centros Comerciales Carrefour, S.A.*ren ordezkariak, ebazpen-proposamenari aurkeztutako alegazio-idazkian, honakoa adierazi zuen:

“Horrenbestez, errealitatea ez da ezertan aldatu nire ordezkatuari egotzitako ustezko isileko erabaki horren ondorioz”. (3321 folioa)

Merkataritza-etxe horren ordezkariak adierazi duen “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren” erabakien aurreko egoerari dagokionez, LDEAk uste du garrantzitsua dela Eusko Jaurlaritzan merkataritza-alorrean eskumena duen sailak esandakoa aipatzea (Merkataritza Saila sektorearen



berri duen sail aditua delako). Izan ere, 33/2005 Dekretua onetsi zenean egindako 2005eko otsailaren 23ko prentsa-oharrean, honakoa adierazi zuen: “Hala eta guztiz ere, sektorearen isileko erabaki batek ezarri zuen merkatariek ez zutela jaiegunetan irekiko, salbuespenak salbuespen”. (2.987 folioa). Gainera, espedientean ez da ezeztatu merkataritza-alorrean eskumena duen sailaren baieztapen hori, eta baieztapen hori aipatutako sailaren prentsa-oharrean argitaratu zen, oro har jakin zedin.

Hau da, adostasun-mahaiak 2005eko maiatzaren 19an hartu zuen erabakiarekin, mahai hori eratu aurreko egoerara itzuli zen, hau da, mahaiako partaideek igande eta jaiegunetan ez irekitzeko isileko erabakitik eratorritako egoerara.

Gainera, egiaztatuta geratu da adostasun-mahaian parte hartu zuten enpresetako batek ere ez duela ireki erkidego osoko jaiegun eta igandetan (tokiko jairen bat salbuespen dela), baina bai ireki duela Estatuko gainerako dendetan.

Azkenik, adostasun-mahaian parte hartu zuten enpresetako baten (Eroski, S. Coop.) ordezkari gaitu batek prentsan egindako adierazpenak aipatuko dira.

Eroskik ezarpen handia du Bizkaiko Lurralde Historikoan. Kontsumo-kooperatiba horri dagokionez, ordezkariak prentsan emandako hainbat elkarrizketatan adierazi zuen lehiakideekin hitzarmenen bat egotekotan baino ez dutela igande eta jaiegunetan irekitzen. Horrela, hitzarmena errazteko jardunbidea egin da, Eroskik etorkizuneko portaera iragartzen dielako lehiakideei, haien portaeraren arabera (irekitzea ala ixtea).

Zantzuak azaltzeko beste arrazoen azterketa eta baztertzeko arrazoen azalpena.

“Centros Comerciales Carrefour, S.A.” merkataritza-etxearen lege-ordezkaritzak adierazi du LDEZk, ebazpen-proposamenean, ez duela aukeren azterketa zehatzik egin. Presuntzio-proba aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da aldean azalpen alternatiboak baztertzeko arrazoiak zehatz aztertzea, eta ebazpen-proposamenean ez da hori egin.

Hala ere, ezin da alegazio hori onartu, LDEZk bai aztertu baitu sindikatuek “adostasun-mahaiko” partaideei egindako presioa, igande eta jaiegunetan merkataritza-dendak ez irekitzeko arrazoi moduan, eta gaitzetsi egin du, froga bidez. Hain zuzen ere, espedientearen instruktoreak adierazi du zuzenbide-estatuak jokaera-aukera nahikoak eskaintzen dizkiela derrigortze edo mehatxuen subjektu pasibo direnei, baina espedientean ez da egiaztatu espedientetaren batek ere aukera horiek erabili dituenik. Arestian azaldutakoa alde batera utzita, Lehia Defendatzeko 15/2005 Legearen



arau-haustetik eratorritako administrazio-erantzukizunaren aringarritzat hartu du LDEZk.

Aipatu den guztitik azpimarratu behar da, LDEZ honek frogatutakotzat aitortutako gertaeren arabera, bete egin direla presuntzio-proba behar bezala aitortu ahal izateko jurisprudentziak eskatzen dituen metatze-baldintzak. Gainera, alegazioa aurkeztu duen merkataritza-etxeak berak aitortu egin du 2005eko maiatzaren 19ko erabakiaren bitartez (2005eko otsailaren 8an hartutako erabakia baliorik gabe uzten duena), igande eta jaiegunetan ez irekitzeko aurreko egoerara itzultzen dela, eta sektorearen isileko erabaki gisa kalifikatu du egoera hori Eusko Jaurlaritzan merkataritza-alorrean eskumena duen sailak.

55. LDEZk dio zigor-prozeduran aztertutako jokabideak Lehia Defendatzeko Legearen 1.1.a) artikuluan debekatutako jardunbidearen barruan daudela, hau da, merkataritza-baldintza batzuk zuzenean ezartzeko hitzartutako jardunbidea eta erabakia, arau-hauste bakar, konplexu eta jarraitu gisa kalifikatu dena. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan merkataritza-dendak herritarrentzat irekitzeko ordutegiak ezartzeko erabakia eta jaiegunetan ez irekitzeko hitzartutako jardunbidea izango litzateke hori.

Centros Comerciales Carrefour, S.A. merkataritza-etxearen lege-ordezkariek esan du egotzi zaion jokabidean ez direla bete arau-hauste bakar, konplexu eta jarraituaren kontzeptua aplikatzeko jurisprudentziak eskatzen dituen baldintzak.

Horri dagokionez adierazi behar da Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinak (Auzitegi Gorenaren 2006ko martxoaren 7ko epaia, 2006/1799 jurisprudentzia-erreferentzia) arau-hauste jarraituei buruz dioela arau-hauste horiek zigor-zuzenbidetik eratorritako eraikuntza juridikoa direla, eta honakoak egin behar direla: Aldez aurretik prestatutako plana edo egoera bera aprobetxatuz prestatutakoa egitea; unitate psikologiko eta materiala duten hainbat ekintza egitea; eta administrazio-agindu bera edo antzekoak haustea. Horrela bada, arau-hauste jarraitua egon dela ondorioztatuzeko, behin eta berriro egin behar izango dira jokabideak, eta agindu bera edo antzekoa hautsi beharko da, eta prozesu psikologiko eta material berari erantzun.

Gauzak horrela, nabarmentzekoa da (egokia delako) LDEZk ebazpen-proposamenean xedatutakoa. Hona hemen:

“Halaber, Erkidegoko eta Espainiako hainbat jurisprudentzian onartu da arau-hauste bakar, konplexu eta jarraituaren kontzeptua, helburu bakarra duten erabaki eta hitzartutako jardunbideak izan ditzakeena¹⁴.

¹⁴ Justizia Auzitegiaren (seigarren aretoa) 1999ko uztailaren 8ko epaia; Gaia: C-49/92 P, Batzordea eta Anic Partecipazioni SpA, I-4125 errekurtsua, 1999, 111-114 paragrafoak.



Duela gutxi Lehen Auzialdiko Auzitegiak adierazi du arau-hauste bakarria lehiaren kontrako portaera baten azalpen juridikoa (hainbat erabaki eta jardunbide juridiko dituen) zein lehiari buruzko arauak hausteagatiko erantzukizunaren izaera pertsonala izan daitekeela. *“Hain zuzen ere, Europako Erkidegoa eratzeko itunaren 81. artikuluko 1. atalean azaldutako erabaki edo hitzartutako jardunbidearen kontzeptuen barruan sar daitezkeen portaeren bitartez arau-haustean parte hartu duen enpresa, portaera horiek arau-haustea elkarrekin egiteko asmoa badute, beste enpresa batzuek arau-hauste beraren barruan egin izan dituzten portaeren arduraduna ere izan liteke, arau-hauste horretan parte hartu bitartean. Horixe gertatzen da enpresa horrek gainerako partaideen legez kontrako portaeren berri zuela edo arrazoiz aurreikus litzakeela, eta arriskua hartzeko prest zegoela frogatzen denean¹⁵.”*

Aztertzen gabiltzan kasuan ezin da onartu aipatutako merkataritza-etxeak azaldu duen errugabetze-argudioa, frogatutako gertaeretatik legez kontrako jardunbide orokor bakarria ondorioztatu delako. Bertan, hitzartutako hainbat ekintza daude, izendatzaile komuna dutenak, hau da: adostasun-mahaiako partaideen merkataritza-dendak irekitzeko ordutegia zehaztea 2005. urterako eta hurrengoetarako, 2006, 2007 eta 2008ra arte luzatu zelako.

Hain zuzen ere, hasieran “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren” 2005eko otsailaren 8ko erabakia hartu zen oinarri, bertako kideek 2005. urtean merkataritza-dendak irekitzeko igande eta jaiegunak zehazteko hartu zutena (uztailaren 3a eta abenduaren 4a). Ondoren, adostasun-mahai horren 2005eko maiatzaren 19ko erabakiaren bitartez, igande eta jaiegunetan ireki edo ixteko egunak zehazteko helburu berarekin, aurreko erabakia baliorik gabe uzteko erabakia hartu zuten. Hala ere, horrek ez du eragin merkataritza-dendak irekitzea merkataritza-ordutegiak arautzen dituen araudiak ezarritakoaren barruan; aldiz, inork ez du ireki igandeetan eta autonomia-erkidegoko jaiegunetan, 2005, 2006, 2007 eta 2008. urteetan eta, beraz, aurretiaz zegoen egoera ezarri da, hau da: igandeetan eta autonomia-erkidegoko jaiegunetan ez irekitzea. Egoera hori sektorearen isileko ituntzat kalifikatu du Eusko Jaurlaritzan merkataritza-alorrean eskumena duen sailak. Horrenbestez, merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren 2005eko maiatzaren 19ko erabakiak igandeetan eta autonomia-erkidegoko jaiegunetan dendak ez irekitzeko isileko erabakia eragin zuen bertako kideen artean.

Gauzak horrela, aipatu egingo da (egokia delako) Gertaerak Zehazteko Orriari egindako alegazioari buruz LDEZk esandakoa, hitzartutako jardunbideren bat egon denik egiaztatu ez dela dioena:

“Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) azaldu du hitzartutako jardunbideak honakoak direla: “enpresen arteko

¹⁵ Lehen Auzialdiko Auzitegiaren 2007ko abenduaren 12ko epaia; Gai metatuak: T-101/05 eta T-111/05; BASF eta UCB, eta Batzordea, 160. paragrafoa.



koordinaziorako modua, zentzu hertsian erabakia lortu arte egin gabe, baina jakinaren gainean ordezten duela lehiaren arriskua, lankidetzaz dagoelako haien artean” (EEJAren 1972/07/14ko epaia; gaia: 48/69 Imperial Chemical Industries Ltd. / Commission des Communautés européennes). Gauza bera adierazi du Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, horrela deskribatu baititu hitzartutako jardunbideak: “merkatu batean dagoen lehia-egoera aldatu edo murriztuz, eragile ekonomikoen artean (normalean lehiakideak direnak) jakinaren gaineko jokabide-parallelismoa eragiten duten jokoerak, haien arteko nolabaiteko lankidetzaz edo koordinazioa eraginez” (Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 1992/03/06ko ebazpena; gaia: Detergenteak).

Joera hori sendotu egin da EEJAren geroagoko beste epai batzuen bitartez. Horietan adierazi da hitzartutako jardunbidearen kontzeptuak koordinazio praktikoaren modalitatea behar duela eragindako enpresen artean, haien artean erabaki formalik lortzeko beharrezanik gabe, baina lehiaren arriskuak kentzen dituen eta haien merkaturan ohiko baldintzak ez diren lehia-baldintzak ematen dizkiena partaideei.

EEJAK ezarritako jurisprudentziaren arabera, oinarrizko bi osagai egon behar dira hitzartutako jardunbidea egon dela zehaztu ahal izateko: Alde batetik, elementu material bat, bi enpresa edo gehiagok merkaturan lehiaren kontrako jokoera izatea; eta beste alde batetik, elementu subjektibo edo nahitako bat, lankidetzaz edo koordinazio praktikoak eragindako enpresen artean.”

Adostasun-mahaiaren 2005eko otsailaren 8ko erabakiak eta mahai horrek 2005eko maiatzaren 19an hartutako erabakiaren ondorioz eragindako dendak ez irekitzeko isileko erabakiak izendatzaile komuna dute, hau da: lehiakideen eta lehiakide ez direnen arteko ituna, merkataritza-dendak irekitzeko ordutegia zehazteko. Hitzartutako jardunbidea da hori eta, horren bitartez, adostasun-mahaiaren parte hartu zuten enpresek haien jarduna koordinatu eta berariaz hartu dute haien jokoeran lankidetzaz praktikoa izateko konpromisoa, merkatu lehiakorrean portaera independentea izateak eratorritako arriskuak kenduz. LDEZk ebazpen-proposamenean dioten bezala, espediente honetan, “adostasun-mahaiak” hartutako erabakia formalki ondorerik gabe utzi den arren, argi geratu da bertan parte hartu duten enpresetako batek ere ez duela ireki autonomia-erkidego osoko jaieguna eta igandeetan, baina bai ireki dutela Estatuko gainerako erkidegoetan. Horrek esan nahi du hitzartutako jardunbideren bat dagoela jaiegunetan ez irekitzeko.

Horrexegatik ez zaio aldeko harrerarik egin aipatutako merkataritza-etxeak hitzartutako jardunbiderik ez dagoela aipatuz azaldu duen errugabetze-argudioari.



56. Arestian aipatutakoaz gain, *Centros Comerciales Carrefour, S.A.* merkataritza-etxearen lege-ordezkaririk adierazi du 2009ko otsailaren 8an hartutako erabakiak ez duela lehiaren kontrako ondorerik, baizik eta, aldiz, lehiaren aldeko ondorea duela. Merkataritza-etxe horrek dio erabakiaren edukiak eta helburuak ez zutela lehia murrizten.

Gauzak horrela, gogoratu beharra dago zein izan zen 2005eko otsailaren 8an “*merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia*” eratu izanaren helburua, partaideen artean jaiegunetan irekitzeari buruzko erabakia hartzea izan baitzen. Horrela bada, helburu hori partaideek mahai horretan hartu zuten erabakiaren bitartez lortu zen, 2005. urtean haien dendak zein igande eta jaiegunetan irekiko zituzten zehaztu baitzen. Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia eratu izanaren helburua urte horretatik haratago doanez, hurrengo urteetan ere batzartzeko erabakia hartu zuten. Hala egin zuten aipatutako mahaiko kideek, eta bi hilabeteko epean berriro batzartu zen adostasun-mahaia, eta baliorik gabe utzi zuen irekitzeko ezarri ziren igande eta jaiegunen erabakia eta, ondorioz, merkataritza-dendak ez irekitzeko egoera eragin zen. Aldiz, Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan bai irekitzen dute igande eta jaiegunetan, autonomia-erkidegoan indarrean dagoen araubide juridikoaren arabera. Horrenbestez, aurreko puntuan adierazi den bezala, legez kontrako jardunbide orokor bakarra baino ez da. Bertan, hitzartutako hainbat ekintza daude, izendatzaile komuna dutenak, hau da: adostasun-mahaiko partaideen merkataritza-dendak irekitzeko ordutegia zehaztea 2005. urterako eta hurrengoetarako, 2006, 2007 eta 2008ra arte luzatu zelako.

Legez kontrako jardunbide orokor hori apropos eta egokia da lehia murrizteko eta, gainera, duen garrantziaren ondorioz, lehiaren kontrako ondoreak eragiten ditu; izan ere, lehiakideek eta lehiakide ez direnek dendak igande eta jaiegunetan irekitzeko ordutegiak ezartzeko hitzartutako erabaki orokorrak eragotzi egin du kontsumitzaileek igande eta jaiegunetan irekitzeak eragiten dituen ondore positiboak eskuratu ahal izatea. Gauzak horrela, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan dagoen kontsumitzaileak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan dagoenak bezala, ez du inolako ezberdintasunik gainerako autonomia-erkidegoetako kontsumitzaileekin alderatuz, eta ezberdintasun bakarra adostasun-mahaiko partaideek oro har hartutako hitzarmen-itunak ezartzen du. Izan ere, itun horrek eragotzi egiten die Bizkaiko kontsumitzaileei eta, oro har, autonomia-erkidegokoei, adostasun-mahaian parte hartu zuten merkataritza-etxeen dendak irekitzeari etekina ateratzea —ez modu justuan, ez justua ez den moduan—. Gauzak horrela, ezin da onartu Lehia Defendatzeko Legearen 1.3 artikulua babesean aipatutako errugabetze-alegazioa, hartutako erabakiek lehiaren kontrako ondorerik ez zutela argudiatu zela. Izan ere, lehiaren kontrako ondore hori eragiteko gaitasuna izateaz gain, ondore negatiboa dute merkaturan lehiaren ikuspegitik, ondore hori automatikoki azaltzen dela eta kontsumitzaileei eragotzi egiten diela haien abantailak



modu justuan erabiltzea. Aldiz, gainerako autonomia-erkidegoetako kontsumitzaileek zuzenean ateratzen diote etekina adostasun-mahaian parte hartzen duten merkataritza-etxeen denden irekierari.

57. Beste alde batetik, Lehia Defendatzeko Legearen 5. artikuluan oinarritutako errugabetze-alegazioa ere ez da onartu behar, egotzitako jokabideen garrantzia txikia dela eta, ondorioz, lehiari nabarmen eragiteko gauza ez direla argudiatu dela. Adostasun-mahaiko partaideek igandeetan eta autonomiako jaiegunetan ez irekitzeko hitzartutako jardunbide hori jardunbide orokorra da, eta ez da adostasun-mahaia eratu zen momenturako bakarrik hartu, 2005. urte osoan aplikatu eta, gero, 2006, 2007 eta 2008. urteetara ere hedatu baitzen. Gogoan izan behar da itun orokorra dela, eta proiektio luzea izan zuela denboran. Nabaria da adostasun-mahaiko kideek igande eta jaiegunetan merkataritza-dendak irekitzeko hartu zuten itun orokorrari dagokionez, ezin dela garrantzi txikikoa denik esan, itun orokor horrek, espedientean egiaztatuta dagoenez, 2005. urtean eta hurrengo 3 urteetan autonomiako jaiegunetan eta igandeetan ez irekitzea eragin baitzuen eta, horren ondorioz, eragotzi egin baitzen eragindako lurralde-eremuko (Bizkaiko) kontsumitzaileek adostasun-mahaiko partaideen merkataritza-dendak ireki izanak dakartzan onurak erabili ahal izatea.
58. Aurretik adierazitakoa kontuan hartuta esan beharra dago Lehia Defendatzeko Legearen 1.1.a) artikulua debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egon direla; jardunbide horiek, LDLren aipatutako agindu horretan debekatutako jardunbidea egitea, hau da, zenbait merkataritza-baldintza zuzenean ezartzeko hitzartutako jardunbidea eta erabakia egitea, izango lirateke, hain zuzen ere. “Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak” lehiakideen arteko erabakia hartu zuen —eta lehiakide ez direnen artekoa, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren kasuan— merkataritza-baldintza batzuk zuzenean ezartzeko, kasu honetan dendak herritarrentzat irekitzeko ordutegiak ezartzeko —igande eta jaiegunetan ireki daitezkeen egunak bi direla—, eta baldintza horiek askatasunez ezarri behar dituzte enpresaburuek, eta ez itunduta. Halaber, aipatutako erabakia formalki ondorerik gabe utzi den arren, argi geratu da bertan parte hartu duten enpresetako batek ere ez duela ireki erkidego osoko jaiegun eta igandeetan (tokiko jairen bat salbuespen dela), baina bai ireki dutela Estatuko gainerako erkidegoetan. Horrek esan nahi du hitzartutako jardunbideren bat dagoela jaiegunetan ez irekitzeko. Horrenbestez, legez kontrako jardunbide orokor bakarra baino ez da. Bertan, hitzartutako hainbat ekintza daude, izendatzaile komuna dutenak, hau da: adostasun-mahaiko partaideen merkataritza-dendak irekitzeko ordutegia zehaztea 2005. urterako eta hurrengoetarako, 2006, 2007 eta 2008ra arte luzatu zelako.



BOSGARRENA.- Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren (CECOBI) arau-haustea preskribatzea.

59. LDLren 1.1.a artikulua debekatutako lehia murrizteko jardunbideak egon direla adierazi ondoren, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren (CECOBI) administrazio-erantzukizunari buruz LDEZk egindako proposamena aztertu behar da. Hain zuzen ere, erakunde horien arau-haustea preskribatu dela adieraz dezala proposatu dio LDEZk LDEAri.

Horren inguruan aipatu behar da Konstituzio Auzitegiak uste duela arau-haustea preskribatuz gero Estatuak uko egiten diola duen *ius puniendi* edo zigor-ahalari, edo ahal hori mugatu egiten duela, denbora igaro delako. Era berean, oinarria du konstituzio-printzipio eta -balioetan, kontuan hartzen baititu zigorraren funtzioa eta ustezko erruztatuaren egoera, zigorraren mehatxu birtuala dakarren egoera behar ez bezala luza ez dadin duen eskubidea; hori guztia behar ez bezalako atzerapenik izango ez duen prozesua izateko eskubidearekin lotu behar da. (Konstituzio Auzitegiaren 157/1990 epaia, 3. oinarri juridikoa).

Lehia Defendatzeko Legeari dagokionez besteak beste Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluak (CECOBI) egin duten arau-haustea preskribatu den balioztatzeko, legez kontrako jokabidea lehiakideen artean egin den ala ez aztertu behar dugu. Izan ere, arau-haustea preskribatzeko epea aldatu egiten da ematen zaion kalifikazioaren arabera, arau-hauste oso larria edo arau-hauste larria izan. Lehia Defendatzeko Legearen kontrako jokabidea arau-hauste oso larritzat kalifikatuz gero, 4 urtekoa izango da preskripzio-epea; larritzat kalifikatuz gero, aldiz, bi urtekoa izango da preskripzio -epea.

LDLren 62.3 artikulua honela azaltzen ditu arau-hauste larriak: *Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten ez dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen arteko erabaki, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira. Legez kontrako jokabide horiek haien artean lehiakide diren enpresen artean eginez gero, arau-hauste oso larritzat jotzen ditu LDLren 62.4 artikulua.*

Hori dela eta, kasu honetan aztertu egin behar dugu LDLren kontrako jokabide hori lehiakideen artean egin den ala, aldiz, horrelakotzat hartu ezin diren erakundeen partaidetzarekin egin den. Gauzak horrela, ez dago inolako zalantzarik: zigor-espeditenteak aipatzen dituen merkataritza-etxeak Bizkaiko banaketa-sektorearen barruan daude eta, beraz, lehiakideak dira. Hala eta guztiz ere, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaian” beste bi erakundek hartzen dute parte: bata Bilboko Merkataritza, Industria



eta Itsasketa Ganbera da, zuzenbide publikoko korporazioa dena, eta bestea Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI), enpresa-federazioaren izaera juridikoa duena.

Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren kasuan, Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera Ofizialak arautzen dituen 3/1993 Legearen 1.2 artikulua dio merkataritza-ganberen helburua merkataritza, industria eta itsasketaren interes orokorrak ordezkatu, sustatu eta defendatzea eta jarduera horiek egiten dituzten enpresei zerbitzuak ematea dela. Erakunde horien izaera juridikoa (zuzenbide publikoko korporazioak) eta dituzten helburuak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera ez dela gainerako espedientatuen lehiakidea, ez eta beste merkataritza-etxeren baten lehiakidea ere.

Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren (CECOBI) kasuan, enpresa-federazioa da, sindikatu-askatasunaren eskubidearen babesean eratuta, eta bere helburuen artean, besteak beste, bere estatutuen 1. artikuluan adierazitakoaren arabera, enpresa-jarduera eta -interesak defendatu eta sustatzea dago. Erakundearen izaera juridikoa eta dituen helburuak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI) ez dela gainerako espedientatuen lehiakidea, ez eta beste merkataritza-etxeren baten lehiakidea ere.

“Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiko” bi partaide, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseilua (CECOBI), ez direnez lehiakideak, arau-haustea larritzat kalifikatu behar da, LDLren 62.3.a) artikuluan xedatutakoa betez. Beraz, arau-haustea preskribatzeko epea bi urtekoa izango da, LDLren 68.1 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Beraz, kasu zehatz honetan, LDEZk ebazpen-proposamenean adierazi bezala preskripzio-epe hori iraungi den aztertu behar dugu. Horretarako, gogoeta juridiko hau hartu behar dugu oinarri: Preskripzioa eten egingo da administrazioak interesatuari formalki jakinarazita burututako edozein ekintzazatik, legeak dioena betetzea helburu duenean.

LDEZk 2008ko martxoaren 22an hasi zuen ebazpen honen bitartez ebatzi beharreko zigor-espedientea; hala ere, aurretiaz, 2005eko otsailaren 4an, LDEZk informazioa eskatu zien bai Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberari eta bai Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluari (CECOBI), Euskal Autonomia Erkidegoan igande eta jaiegunetan irekitzearekin/ez irekitzearekin zerikusia zuten erabakiei buruz (2005eko otsailaren 7an jaso zituzten aipatutako erakundeek eskaera horiek). Informazio-eskaera hori herri-administrazioaren (LDEZ) egintza formala da, interesdunari formalki jakinarazitakoa, eta legea betetzea da bere helburua. Beraz, interesdunek eskaera jaso zuten egun hori hartu behar da



erreferentzia moduan aipatutako erakundeen LDLren arau-haustea preskribatu den ala ez egiaztatzeko, arau-haustea egin zenetik bi urte igaro diren ikusteko.

Arestian azaldu den bezala, *“merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia”* Merkataritza Ganberaren egoitzan eratu zen 2005eko otsailaren 8an, eta igande eta jaiegunetan merkataritza-dendak irekitzeko ordutegia elkarrekin zehazteko erabakia hartu zuten bertako partaideek. Interesdunek jakin zuten LDEZren lehenengo egintza 2008ko martxoaren 7an izan zen, informazioa eskatu zenean. Beraz, agerikoa da bi urteko preskripzio-epea igaro dela Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberak eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluak (CECOBI) egindako arau-hausteari dagokionez. Gauzak horrela, azaldutako oinarriaren arabera, ezin da onartu AUSBANC elkarteak ebazpen-proposamenaren kontra azaldutako alegazioa; izan ere, Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren (CECOBI) erantzukizunak kentzearen kontra azaldu zen alegazio horretan.

SEIGARRENA.- Amaiera itunduaren proposamena, Leroy Merlin España, S.L.U., Decathlon España, S.A.U., Ikea Norte, S.L., El Corte Inglés, S.A., Eroski, S.COOP., Supermercados Sabeco S.A. eta Media Markt Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A. enpresek aurkeztutako konpromisoak oinarri hartuta.

60. Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren zortzigarren xedapen gehigarriarekin bat etorrira eta lehiaren defentsarako euskal organoak sortzeko 81/2005 Dekretuaren arabera, Auzitegi honek ebatzi behar du LDEZk hasitako 9/2007 espedientearen amaiera itunduaren proposamena.
61. Prozedura tramitatzean bete egin behar da otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuak onetsi zuen Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduan xedatutakoa eta, batez ere, 39. artikuluan xedatutakoa.
62. Aurretiaz, espedientearen amaiera itundua egiteko beharrezko inguruabar guztiak betetzen direla adierazi behar da. Zehazki, proposamen-txostena egin aurretik hasi da formalki espedientea. Gainera, aipatutako enpresek espedientea amaiera itunduaren prozeduraren bitartez amaitzeko eskatu dute, eta salatutako jokabideetatik eratorritako lehia-arazoak konpontzeko konpromisoak azaltzen dituzten idazkiak aurkeztu dituzte.



63. Horrenbestez, premisa horiek egiaztatu ondoren, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 52. artikuluan eta Erregelamenduaren 39. artikuluan ezarritakoaren arabera, aldeek aurkeztutako konpromisoek espedientean azaldutako jokabideetatik eratorritako lehiaren gaineko ondoreak konpontzen dituzten eta interes publikoa behar bezala bermatuta dagoen aztertu beharko du LDEAK.

64. LDEZren aurreko instrukzio-fasean jardundako guztitik ondorioztatu da espedientea amaiera itunduaren bitartez amaitzeko eskatu duten enpresek 2005eko otsailaren 8an sortutako “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak” parte hartu zutela, eta mahai horren helburua jaiegunetan irekitzeari buruzko erabakia lortzea zela, orduan onestear zegoen Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren eremuan.

“Merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak” horretan erabaki hauek hartu ziren:

- 1) *“Agertutako aldeek ezarri dute 2005. urterako bi (2) igandetan garatu ahal izango dituztela merkataritza-jarduerak merkataritza-ordutegiei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren estipulazioek eragindako dendek. Egun horiek uztailaren 3a eta abenduaren 4a izango dira, hain zuzen ere.*
- 2) *Erabaki honetako puntuek errespetatu egin behar dituzte eragindako dendek merkataritza-jarduera garatzeari dagokionez Dekretuak baliogabetzat hartutako jaiegunak. Era berean, beste irizpide batzuk ere hartu beharko dira kontuan, esaterako irekitzeko proposatu diren jaiegun horiek kontsumitzaileentzat duten merkataritza-erakargarritasuna eta dauden merkataritza-egiturak garatzeko aukera, ezinbesteko baldintza dena Eusko Jaurlaritzak erabaki horri legezko estaldura eman ahal izateko.*
- 3) *Mahaiak aldizka batzarrak egingo dituela erabaki da, hurrengo urteetan gai hori adostu ahal izateko.”*

Ondoren, 2005eko maiatzaren 19an, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiko” kideek baliorik gabe utzi zuten 2005. urtean bi jaiegunetan irekitzeko erabaki hori eta, ondorioz, elkarrekin onartu zen, isilean, jaiegunetan ez zirela dendak irekiko.

2005eko otsailaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (40. zenbakia) argitaratu zen 33/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzkoa. Bertan ezarri zen Euskal Autonomia Erkidegoan dauden merkataritza-gune handiek merkataritza-ordutegiak ezarri ahal izango dituztela, baina kontuan izan



beharko dutela gehienez ere 8 egunetan garatu ahal izango dutela merkataritza-jarduera igande eta jaiegun guztien artean.

Errealitatean, egiaztatu egin da enpresa espedientatuek bete egin dutela 2005eko maiatzaren 19ko batzar horretan isilean ezarritakoa, egun horretatik gaur arte ez baitute dendarik ireki jaiegunetan, nahiz eta otsailaren 22ko 33/2005 Dekretua hartu zenetik 400 m² baino gehiagoko salmenta-azalera duten enpresek urtean gehienez zortzi jaiegunetan ireki ahal duten.

Hori guztia kontuan hartuta ondorioztatu da Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikulua kontrako legez kontrako erabakia dagoela, eta bere helburua Bizkaian igande eta jaiegunetan dendak ez irekitzea elkarrekin hitzartzea dela, aldeek haien merkataritza-politika (eta bereziki jaiegunetan dendak irekitzeari buruzko erabakiak) modu autonomoan definitu eta hartzeko duten askatasuna mugatuz.

65. Ebazpen honetan, frogatutako gertaerei buruzko atalean, zehatz azaldu dira aztertutako jardunbideak eragindako merkatu aipagarria definitzen duten ezaugarriak.

Horri buruz aipatzekoa da, ikuspegi juridikotik, gertaeren unean aplikatu beharreko merkataritza-araudiak eta gaur egungoak ez duela jaiegunetan irekitzea eragozten, baina EAEn kasuan, gaur egungo araudiak 8 egunera mugatzen du irekitzeko aukera 150 m² baino gehiagoko salmenta-azalera duten merkataritza-denda guztietarako (Merkataritza Jarduerari buruzko 7/2008 Legea).

Ikuspegi sektorialetik, merkatu heterogeneoa da hau, eta gertaeretan parte hartzen duten enpresak modu ezberdinean lehiatzen dira haien artean, erabilitako merkataritza-formatuaren, eskaintako zerbitzuen eta merkaturatutako produktuen motaren arabera. Kasu batzuetan lehia erabatekoa da, beste batzuetan partziala (maila ezberdinean), eta beste batzuetan ez dago zuzeneko lehiarik parte hartu duten enpresen artean.

Geografiari dagokionez, eragindako merkatua EAEn da. Izan ere, egiaztatu den bezala, oro har, espedientatutako enpresek ez dute berdin jokatu autonomia-eremuko gainerako merkatuetan, dendak irekitzen baitituzte hainbat jaiegunetan, urtero. Era berean aipatu behar da merkataritza-denda handiak ez irekitzeak eragin garrantzitsua duela merkataritza-sektoreko gainerakoetan (merkataritza txikia), jaiegunetan ez irekitzeko merkataritza-dinamikari jarraitu behar baitiote, merkataritza-gune handiek kontsumitzaileak erakarri eta dituzten kontsumo-ohiturak aldatzeko duten efektu eragilearen ondorioz.



Amaitzeko, espedientean aztertzen ari den jokabidea aztertzean alde batera utzi behar ez den beste ezaugarri bat sektore honetan nagusi den gizarte-eta lan-alorrari buruzkoa da eta, batez ere, merkataritza-denda handiek EAEn jaiegunetan irekitzea saihesteko sindikatuek egiten duten presio eta erreparolari buruzkoa. Hain zuzen ere, espedientatuek azaldu dute zaila dela urteko zenbait jaiegunetan dendak irekitzeko aukera azaltzen duen merkataritza-politika ezartzeko duten askatasuna erabili ahal izatea, sindikatuek presio handia egiten dutelako politika horren kontra eta indar horiek jokaera bortitza azaldu dutelako (piketeak, mehatxuak, etab.) iraganean jaiegunetan dendak irekitzen saiatu direnen aurrean.

Egia da alegazio horiekin bakarrik ezin dela justifikatu lehiaren kontrako itunen bat dagoela merkatuan, baina kontuan izan beharko dira lehiaren eremuan antzemandako arazoak konpontzeko aldeek proposatu dituzten konpromisoak aztertzean.

66. Aldeek proposatutako konpromisoak azaldu aurretik, eta lehiaren ikuspegitik horien balorazio juridikoa egin aurretik, Bizkaiko lurralde-eremuan dendak jaiegunetan irekitzeari dagokionez antzemandako lehia-arazoak balioztatzea komeni da, horixe baita eztabaida-gai nagusia espediente honetan.

Lehia askeko sistemak behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoa da operadore ekonomikoei erabakiak hartzeko orduan merkatuetan modu autonomoan jarduteko moduko baldintzak ezartzea, eta muga bakarrak legeek ezarritakoak izatea. Hori dela eta, araudiak jokaera-gaitasunari mugarik ezartzen ez dion eremuetan, enpresek askatasunez zehaztu beharko dute ekintza-estrategiarik eraginkorra lehiaren ikuspegitik.

Merkataritza-jardueraren eremuan, aplikatu beharreko araudiak hainbat muga ezartzen ditu merkatuen funtzionamendu-alderdiak arautzeko, izaera publikoko interes zehatz batzuk babestearren (kontsumitzailearen babesa, osasunarena, segurtasun publikoarena, etab.).

Irekiera-ordutegiak eta, bereziki, jaiegunetan irekitzeko aukera mugatzea legeek merkataritza-sektoreko langileen lan-baldintzak babesteko duten kezka eta asmoaren adibidea da. Lehia askearen ikuspegitik enpresen erabaki-gaitasunaren muga hori interes orokorrerako negatiboa dela ondoriozta daitekeen arren, hala ere errespetatu egin behar da, lege-arau batean dagoelako oinarrituta. Hala eta guztiz ere, enpresaren askatasuna mugatzen duen arauak marko juridikoa ezartzen duenez eta, horren barruan, enpresek askatasunez erabil dezaketenez haien jokaera-estrategia, askatasun hori murrizteko edo urratzeko joko guztiak (bereziki legez kontrako edo neurritz kanpoko jokabideen bitartez) baztertu eta debekatu egin beharko dira.



Kasu honetan, “merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaia” osatu zuten enpresek hartutako erabakiak, beren-beregi (2005eko otsailaren 8ko mahaia) zein isilean (2005eko maiatzaren 19ko mahaia) itunduta egon, enpresaren askatasun-printzipioaren kontrakoak dira. Printzipio hori, merkataritza-jarduera eta merkataritza-ordutegiak arautzen dituen araudiak berak murriztuta dagoela, ezin da gehiago murriztu enpresek irekiera-egunak zehazteko duten ekintza-askatasuna are gehiago murrizteko helburua duten erabakiekin. Beraz, lege-eremuaren barruan baimenduta dagoen merkataritzen irekiera mugatu eta baldintzatzeko enpresen arteko jokaerak baztergarriak dira, eta debekatu egin behar dira, herri-administrazioaren eremutik jaso dezaketen babesa kontuan hartu gabe.

Instrukzioa bideratu bitartean espedientaturen batek aipatu du bere jokaera zilegia zela uste zuela, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Merkataritza Sailak adostasun-mahaian egindako negoziazioetan parte hartu zuelako. Gauzak horrela, espediente honetan aztertutako erabakietan gobernuak izan zuen partaidetza-maila balioztatzen hasteko beharrik gabe, gogorarazi egin behar da LDLren 4. artikulua lege baten aplikaziotik eratorritako jokabideak baino ez dituela debeku horretatik kanpo uzten; beraz, lortutako erabakia botere publiko baten jokaeraren ondorioz eragin izanak ez du lehia defendatzeko araudia hausteagatikko administrazio-erantzukizunetik salbuesten.

67. 2009ko apirilaren 30ean, Leroy Merlin España, S.L.U., Decathlon España, S.A.U. eta Ikea Norte, S.L. enpresek idazki bana bidali zioten, faxez, LDEZri, eta zigor-prozeduraren amaiera itundua lortzeko jokaerekin hasteko erabaki zezala eskatu zioten idazki horien bitartez.

Egun berean, zerbitzuak erabaki zuen onartu egingo zela zigor-prozeduraren amaiera itundua lortzeko jokaerekin hasteko eskabidea. Ondoren, El Corte Inglés, S.A., Eroski, S.COOP., Supermercados Sabeco, S.A. eta Media Marr Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A. merkataritza-etxeek erabaki zuten atxiki egingo zitzaizela amaiera itunduaren prozedura hasteko eskabideari.

2009ko ekainaren 5etik 10era bitartean jaso ziren amaiera itunduko partaide guztiek aurkeztutako konpromiso-proposamenak. Antzekoak ziren guztiak, eta honakoa zioten:

- 1) *Beren kabuz jarraituko dute Euskal Autonomia Erkidegoan igande eta jaiegunetan merkataritza-jarduerak egingo diren zehazten.*
- 2) *Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiarekin batera, igande eta jaiegunetan merkataritza-jarduerak egiteko egutegi bat prestatzeko eskatuko zaio Eusko Jaurlaritzako Industria eta Berrikuntza Saileko Merkataritza Zuzendaritzari (gainerako autonomia-erkidegoetan dagoen bezala); hala ere, irekitzeko*



erabakiak Espainiako Konstituzioaren 38. artikuluan bermatzen den enpresaren askatasun-printzipioaren oinarrian hartuko dira.

2009ko uztailaren 6an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, aurkeztutako konpromisoak baztertuko zirela eta enpresei beste konpromiso batzuk aurkezteko bi hilabeteko epea emango zitzaie la dekretatu zen.

2009ko irailaren 2tik 11ra bitartean jaso ziren amaiera itunduko partaide guztiek aurkeztutako konpromiso-proposamen berriak; honakoa zioten:

- 1) *Konpromisoa hartuko dute legez baimendutako igande edo jaiegunetan haien dendak irekitzeko askatasuna mugatzeko helburua duten edo mugatzea eragin lezaketen beste enpresa batzuekin hitzartutako jardunbide edo erabakietan parterik ez hartzeko.*
- 2) *Lankidetzan arituko dira lehia defendatzeko euskal organoekin, Eusko Jaurlaritzak Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen abenduaren 21eko 1/2004 Legearen 4. artikuluko 4. atalak emandako eskumenak erabiltzea errazteko garatuko dituzten ekimenetan.*
- 3) *Hilabeteko epean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak amaiera itunduari buruzko ebazpena egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita, beste autonomia-erkidegoetako esperientzia kontuan hartuta bereziki euskal herritarren eskaria betetzeko bere ustez urtean ireki behar den igande eta jaiegunen kopuruari buruzko arrazoizko txostena emango zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari bidal diezaion, honek zehaztutako ondoreetarako.*
- 4) *Hilabeteko epean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak amaiera itunduari buruzko ebazpena egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita, beste autonomia-erkidegoetako esperientzia kontuan hartuta bereziki euskal herritarrentzat interesgarrien jotzen dituen 2010 eta 2011. urteetako igande edo jaiegunen arrazoizko zerrenda (garrantziaren arabera ordenatuta) jakinaraziko zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari bidal diezaion, honek zehaztutako ondoreetarako.*

Konpromiso horiek egokitzat hartu ziren LDEZk antzemandako lehia-arazoak konpontzeko.



68. Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 52. artikuluan (zortzigarren xedapen gehigarriarekin lotuta) azaldutako xedapenen arabera, LDEAk “debe katutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek konpromiso batzuk hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espediente irekitzea eragin duten jokaerek lehian zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada”.

Espediente honetan azaldu den lehia-arazoa ebazpen honetan azaldu diren kideen partaidetzarekin ordutegiei buruzko adostasun-mahaia eratzetik ondorioztatutakoa da.

Adostasun-mahai horretan, enpresa partaideek, lehiakideak direla, lehia murrizteko moduko erabakiak hartu dituzte, bereziki Bizkaiko Lurralde Historikoan jaiegunetan irekitzeko aukera mugatzeari dagokionez, eta horrela, merkataritza-politikak ezartzean gailendu behar duen enpresaren askatasun-printzipioa haustea eragin dezakete.

Bizkaiko Lurralde Historikoan eta EAEn jaiegunetan dendak ez irekitzea salbuespena da Estatuan, jaiegun batean ere dendak eta merkataritza-gune handiak irekitzen ez dituen autonomia-erkidego bakarra baita. Auzitegi honek uste du enpresek eta sindikatuek eragindako ezohiko gertaera dela hau, gainerako autonomia-erkidegoetan ohiz kanpokoa dena EAEn arrunt gisa ezartzea lortu baita.

Amaiera itundua eskatu duten enpresek aurkeztutako konpromisoek bi aldetan bermatu behar dute interes publikoa. Alde batetik enpresek konpromiso argi eta irmoa hartu behar dute, jaiegunetan dendak irekitzarekin zerikusia duten alderdiak berriro ere zuzenean edo zeharka adostuko ez direla esanez; horrela, enpresa bakoitzak zehaztuko du bere merkataritza-politika, modu autonomoan. Beste alde batetik, etorkizunean enpresek konpromisoa hartu beharko dute jarrera proaktiboa eta lankidetzakoa izateko lehia defendatzeko organoekin, dendak irekitzeari dagokionez kontsumitzaileentzat interes orokorrekoak izan daitezkeen igande edo jaiegunak zehazteko. Konpromiso honen helburua da dendak jaiegunetan irekitzea saihesteko sindikatuek egiten duten presioa arintzea eta dendak kontsumitzaileentzat interesgarri izan daitezkeen egunetan irekitzea erraztea, helburu hori lortzeko jarrera positiboa eta gizarte-eskaria sor ditzaketen komunikazio-kanpainak ere eginez.

Auzitegiak uste du enpresek aurkeztutako konpromisoek (ebazpen honen 1. eranskinean azaldu dira) bete egiten dituztela aipatu diren bi helburuak eta, ondorioz, interes publikoa bermatzen dutela, 15/2007 Legearen 52. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Alde batetik, lehenengo puntuaren bitartez, enpresek konpromisoa hartu dute parterik ez hartzeko igande edo jaiegunetan dendak irekitzeko duten



askatasuna mugatu dezaketen hitzartutako jardunbide edo erabakietan. Beste alde batetik, bigarren, hirugarren eta laugarren puntuetan azaldutako konpromisoen bitartez, enpresek euren burua behartu dute lehia-arloan eskumena duen euskal agintaritzarekin elkarlanean aritzera, jaiegunetan dendak irekitzea errazten saiatzeko, Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen abenduaren 21eko 1/2004 Legearen araudia garatzearen bitartez (LDEAk proposatuko liokeela Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari) edo LDEAk eta enpresa eskatzaileek elkarrekin aztertuko dituzten beste bitarteko batzuen bitartez, interes orokorrekotzat hartuko diren jaiegunetan dendak irekitzearen aldeko giroa sortzeko euskal gizartean.

69. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu da eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak 13.1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera (martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), LDEZ da onartutako konpromisoak betetzen diren zaintzeko ardura duen organoa.

ZAZPIGARRENA.- “Centros Comerciales Carrefour, S.A.” merkataritza-etxearen zigorra

70. Enpresak adostasun-mahaiaren partaidetzan duen erantzukizunari dagokionez, ondorioztatu behar da Centros Comerciales Carrefour, S.A.k parte hartu duten gainerako enpresen neurri berean hartu duela parte mahaietan. Beraz, ez da nabarmendu erabakiak sustatu dituen enpresa izateagatik, eta ez du gainerako enpresa edo erakunde partaideei egokitu behar zaiena baino zigor handiagorik merezi izateko moduko partaidetzarik izan.

Gauzak horrela, LDEA honi deigarri egin zaio ordutegiei buruzko adostasun-mahaietan parte hartu zuten enpresa guztiek, Centros Comerciales Carrefour, S.A.k izan ezik, espedientearen amaiera itundua eskatu izana, interes publikoa bermatzeko egoki eta nahikotzat hartu diren konpromiso argi eta nabariak aurkeztuz.

Zigor-espediente honetan aztertutako jokabidea bereizten duten elementuak eta nolabait ordutegiei buruzko adostasun-mahaietan sortzen lagundu duten baldintza juridiko eta sozialak erabakigarriak izan dira Auzitegi honentzat zigorra ezartzeko orduan.

Centros Comerciales Carrefour, S.A. enpresak ez duenez adierazi itunean parte hartu zuten gainerako enprekin batera amaiera itunduaren prozeduran sartu nahi duela, beste egoera bat du prozeduraren ebazpen-fasean. Hala eta guztiz ere, espediente honen helburu izan diren lehia murrizteko erabakietan izan duen partaidetza-maila kontuan hartuta, Centros Comerciales Carrefour, S.A.k gainerako partaideen egoera berbera du.



Hori dela eta, Auzitegi honek uste du Centros Comerciales Carrefour, S.A. enpresari ezarri beharreko zigorra jokabide-zigorra izan beharko dela. Egiaztatuta geratu den bezala, espedientean azaldu den lehia-arazo nagusia jaiegunetan ez irekizetik eratorri da, adostasun-mahaian lortutako erabakiak eraginda. Hala ere, adostasun-mahai hori sortzen lagundu zuten eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan oraindik dauden eragileak ere hartu behar dira kontuan, eta bereziki igande eta jaiegunetan dendak irekitzeko ahaleginak eragozteko sindikatuek egiten duten presio etengabe eta sendoa.

Horrenbestez, Auzitegi honek uste du Centros Comerciales Carrefour, S.A. enpresak bete egin beharko dituela gainerako enpresek amaiera itunduaren prozeduran aurkeztu dituzten konpromisoak. Halaber, jendaurrean azalduko da ebazpen honen xedapen-atalaren edukia, Bizkaiko Lurralde Historikoan hedadura handia duten komunikabideen bitartez.



Lehia Defendatzeko 15/2007 Legea eta oro har aplikatu beharreko beste xedapen batzuk aztertu ondoren, Auzitegiak honakoa eman du:

EBAZPENA

LEHENENGOA.- Adierazi egingo da espediente honetan egiaztatu egin dela Bizkaiko Lurralde Historikoan igande eta jaiegunetan irekitzeko egunak ezartzeko erabakia hartu zela, eta horrek lehia murrizt zezakeela Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 1.1.a) artikulua adierazitakoaren arabera.

BIGARRENA.- Asociación Española de Distribuidores, Autoservicios y Supermercados (ASEDAS) elkarteari eta Toysrus Iberia, S.A.U. enpresari dagokienez, haien jokoerak artxibatuko direla erabaki da, ez delako egiaztatu merkataritza-ordutegiei buruzko adostasun-mahaiak lortutako erabakietan parte hartu zutenik.

HIRUGARRENA.- Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberaren eta Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Kontseiluaren (CECOBI) jokoerari dagokionez, preskribatu egin da, lehiakideak ez diren erakundeak direlako eta, ordutegiei buruzko adostasun-mahaiaren erabakietan parte hartu arren, iraungi egin delako gertaeretan izan zuten erantzukizuna, LDLren 68.1 artikuluan ezarritako epea (bi urteko epea) igaro delako.

LAUGARRENA.- Decathlon España, S.A.U., El Corte Inglés, S.A., Eroski, S.COOP., Ikea Norte, S.L., Leroy Merlin España, S.L.U., Media Mark Barakaldo Video TV Hifi Elektro Computer Foto, S.A. eta Supermercados Sabeco, S.A. enpresei dagokienez, espedientearen amaiera itundua erabaki da, eta enpresek aurkeztutako konpromisoak (1. eranskinean azaldutakoak) antzemandako lehia-arazoak ebazteko egokiak direla ondorioztatu da.

BOSGARRENA.- Centros Comerciales Carrefour S.A. enpresaren jokoerari dagokionez, bi jokabide-betebehar ezarriko direla erabaki da. Hona hemen:

- Amaiera itundua eskatu zuten enpresek proposatu zituzten eta antzemandako lehia-arazoak konpontzeko eta interes publikoa bermatzeko egokitzat jo diren konpromisoak betetzea (ebazpen honen 1. eranskinean azaldu dira).
- Ebazpen honen xedapen-atala EHAA eta eskualdean gehien saltzen diren bi egunkaritako ekonomia ataletan argitaratzea, bi



hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Bete ezean, 600 €-ko hertsatzeko isuna ezarriko da atzeratutako egun bakoitzeko.

SEIGARRENA.- Enpresei aginduko zaie LDEZn justifika dezatela aurreko ataletan ezarritako betebeharrak bete dituztela.

ZAZPIGARRENA.- LDEZ izendatuko da Auzitegi honek onartutako konpromisoak betetzen diren zaintzeko organo arduradun izateko.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, interesdunei eta Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 48.1 artikuluan eta zazpigarren xedapen gehigarrian, eta apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuaren 15.3 artikuluan adierazitakoa betez. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 24a

LEHENDAKARIA
JAVIER BERASATEGI TORICES

LEHENDAKARIORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI



1. ERANSKINA

(1) DECATHLON ESPAÑA, S.A.U., (2) EL CORTE INGLES, S.A., (3) EROSKI, S.COOP., (4) IKEA NORTE, S.L., (5) LEROY MERLIN ESPAÑA, S.L.U., (6) MEDIA MARKT BARAKALDO VIDEO TV HIFI ELEKTRO COMPUTER FOTO, S.A. ETA (7) SUPERMERCADOS SABECO, S.A. MERKATARITZA-ETXEEN KONPROMISO-PROPOSAMENA.

1) Konpromisoa hartuko dute legez baimendutako igande edo jaiegunetan haien dendak irekitzeko askatasuna mugatzeko helburua duten edo mugatzea eragin lezaketen beste enpresa batzuekin hitzartutako jardunbide edo erabakietan parterik ez hartzeko.

2) Lankidetzan arituko dira lehia defendatzeko euskal organoekin, Eusko Jaurlaritzak Merkataritza-ordutegiak ezartzen dituen abenduaren 21eko 1/2004 Legearen 4. artikuluko 4. atalak emandako eskumenak erabiltzea errazteko garatuko dituzten ekimenetan.

3) Hilabeteko epean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak amaiera itunduari buruzko ebazpena egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita, beste autonomia-erkidegoetako esperientzia kontuan hartuta bereziki euskal herritarren eskaria betetzeko bere ustez urtean ireki behar den igande eta jaiegunen kopuruari buruzko arrazoizko txostena emango zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari bidal diezaion, honek zehaztutako ondoreetarako.

4) Hilabeteko epean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak amaiera itunduari buruzko ebazpena egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita, beste autonomia-erkidegoetako esperientzia kontuan hartuta bereziki euskal herritarrentzat interesgarrien jotzen dituen 2020 eta 2011. urteetako igande edo jaiegunen arrazoizko zerrenda (garrantziaren arabera ordenatuta) jakinaraziko zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari bidal diezaion, honek zehaztutako ondoreetarako.